



GABONAK 2025 / 11

Gabonen atariko azoka, domekan, Garaiko plazan

11:00etan hasita, dozena bat baserritar eta ekoizleren produktuak eskuratu ahalko dira. Txosna bat ere ipiniko dute, bertan edariak eta txerriki mokaduak saltzeko / 6



Ainhoa Olaso eta Usue Egia durangarrak Sormen Bekaren irabazle



Faben Ituarte ez du Olazarreko finala jokatu, baina hainbat txapelketa irabazi du aurtan / 28

Julen Apella berriztarrak bere lehen eleberria kaleratu du; pozik dago jasotako mezuekin / 26



POLTA BETE ELKARTASUN BAZTERKERIARI AURRE EGITEKO

JAED elkarteak Durangoko eta lurretako 904 herritarri lagundu zien iaz, urteko momenturen batean, oinarritzko elikagaiak emanda. Elkartea erreferentziatzko gunea da beharrezana duten herritarrentzat. / 2-3

JAED elkarteko boluntarioak oinarritzko elikagaiekin beteriko poltsak prestatzen.



JAEDeko arduradunak eta lurretako ikasleak boluntario lanetan.

Elkartasun bete elikagai poltsa 900 herritarrentzat

Batez beste, JAEDek bazterkeria egoeran dauden Durangoko eta lurretako ia 200 familiari banatzen dizkie oinarritzko elikagaiak hilean. Iaz, 904 herritarri lagunduta zarratu zuten urtea. Erreportaje hau Tokikomen eta EITBren arteko 'Saretzen' egitasmoaren zati da

Ekaitz Herrera ELKARTASUNA

JAED elkarteak iazko eragin soziala neurtu du. 2024an, Durangoko eta lurretako 904 herritarri lagundu zieten urteko momenturen batean, horiei oinarritzko elikagaiak emanda. Hilean 179 familia eta 409 pertsona izan ziren, batez beste. Izan ere, elkartera laguntza eske dotozenen altek eta bajek gora-beherak izaten dituzte denboran zehar. "Batzuk elikagaiak jasotzen hasten dira, baina lana topatzen dute gero eta aldatu egiten zaie egoera", azaldu du Susansa Lorenzo elkarte arduradunak. Elkarteak 109.327 kilo elikagai banatu zituen guztira. Elikagaien zatirik handiena, 78.227 kilo, JAEDek berak erosi zuen, finantziazio bide propioak erabilita. Gainerakoak, 31.100 kilo, Bizkaiko Elikagaien Bankuko eta saltoki txikien dohaintzetatik jaso zituzten.

Laguntza jasotzen duten herritarren jatorriari dagokionez, aniztasun handia dago. Kopu-

rukik handiena Latinoamerikako herrialdeetako da: jatorri kolonbiarrek (223 pertsona) eta boliviarrak (120) agertu zuten zaurgarritasunik handiena, eta eskatzaileen artean koska bat beherago kokatu ziren marokoarrak (95 herritar) eta nigeriarrak (59). Espainiako hiritasuna zuten eskatzaileak 55 izan ziren, eta beheragoko kopuruetan identifikatu zituzten malitarrak (43), nikaraguarrek (26), errumaniarrak (23) zein brasildarrak (6). Guztira, 32 herrialdeetako bizilagunek jo zuten JAEDera elikagai eske.

Zaurgarritasunaren profila

Herritarrek arrazoi bat baino gehiago dute elkartera laguntza

ESKATZAILEEN ARTEAN AMA EZKONGABEAK ETA AMA BANANDUAK DIRA NAGUSI

eske joateko. Motiborik argiena eta ohikoena baliabide ekonomiko urriak izatea da, eta hor profil jakin bat nagusitzen da: emakumeena. Kasurik gehienetan ama ezkongabeak dira laguntza eskatzaileak, baita seme-alabaren baten ardurapean dauden emakume bananduak ere. Familia unitate asko ama monoparentalek osaturikoak izan ziren (96 kasu).

60 urte baino gehiago

JAED elkarte 1963an sortu zen. Eusko Jaurlaritzak Onura Publikoko Elkarte izendatu zuen 1994an, "modu jarraituan eta era desinteresatuan egiten duen lan sozial garrantzitsuagaitik". Durangoko eta lurretako udalekin esku hartzen du, Mankomunitateagaz ere bai, eta aliantzak ditu baita Gurutze Gorriagaz eta Caritasegaz ere. Elkarteak 110 bazkide kolaboratzaile baino gehiago ditu, eta inguruko supermerkatuen dohaintzak ere jasotzen ditu.

JAEDen lan solidarioa, datuetan


■ JAED ■ Bizkaiko Elikagaien Bankua



Banatutako elikagaiak, kilotan. JAEDek 109.327,69 kilo elikagai banatu zituen 2024an. Elikagai horien gehiengo elkarreak berak eskaini zuen, bere baliabide propioekin finantzatuta. Gainerakoak Bizkaiko Elikagaien Bankuko dohaintzak izan ziren, JAEDek kudeatu zituenak.



Laguntza jasotzen dutenak, herrialdeka. Iaz, 32 herrialdeetako bizilagunek jaso zituzten oinarritzko elikagaiak JAEDen eskutik. 904 herritarrek, guztira. Grafikoan, herrialde nagusiak ageri dira. Ez denak.



Umeak tartean daudenean. Elkartera laguntza eske jotzen duten askok umeak dituzte. Familia mota horietan, emakume monoparentalak dira nagusi (96). Umedun bikoteak apur bat gutxiago izan ziren (91). 22 umerik bako bikoteak ziren, eta 6 gizonezko monoparentalak.

"Herriarren inplikazioa erabatekoa da JAEDegaz"

ESTI ZURIKARAI LEJARRETA JAED ELKARTEKO KIDEA

JAEDek 62 urte egin ditu lanean etenik barik, era boluntarioan. Esti Zurikarai bazkide egitera deitu ditu herriarrak, horrek elkartearen egonkortu egingo lukeelako

Ekaitz Herrera JAED

JAEDek 60 urte baino gehiago ditu. Ibilbide mardula du.

Durango batzuek sortu zuten elkartearen premia larrian zeudenei laguntzeko, eta zeregin horregaz jarraitu dugu urte hauetan guztietan. Bulegoan lan egiten dutenek aurrez aurreko arreta eskaintzen diete hona datozenek, euren beharrianak aztertzen dituzte. Gero, elkartearen beste kide batzuk poltsak prestatzen ditugu beharrian horien arabera.

Zer eskaintzen duzue poltsetan?

Olio, tomate, pasta, arroza, lekaleak, barazkiak, jogurtak,... oraintsu sardina latak eta barazki potoak sartzen hasi gara, eta orain urtebete pasatxo higiene produktuak sartzen hasi ginen; komuneko papera, haginetoak pasta eta dutxarako xaboi, besteak beste. Gero, urtean birritan, paperezko mukizapiak, sukaldarako papera eta hortz eskuilak banatzen ditugu. Urte bira arteko umeen kasuan, pixoihalak, edoskitze esnea eta umeentzako zerealak ere banatzen ditugu.

Durango eta lurretako zenbat herriarri laguntzen diozue?

Urtean zehar, batez beste, 180-200 herriarri.



Esti Zurikarai.

Zenbaki horrek gorabeherarik izan du azken urteotan?

Urtetik urtera antzerako kopuruekin gabiltzala esango nuke. Batzuk, lana topatu dutelako edo, joan egiten dira gure zerrendatik. Baina berriak ere etortzen dira, aldi berean. Horrenbestez, oreka horretan gabilta, kopuru horietan.

Zein da laguntza eske datorrenaren profil nagusia?

Latinoamerikako herriarrak ditugu: kolonbiarrak, peruarak... Afrikarrak ere bai. Eta hemen

jaiotakoak ere baditugu, betidanik durangarrak izan direnak. **Laguntzak asterokoak dira?**

Bai, asterokoak. Eskatzaile bakoitzak egun zehatz bat dauka poltsa jasotzeko. Zenbaki bat izaten dute eta beharrezko identifikazioak aurkeztu behar izaten dituzte poltsa jasotzeko.

Zelakoa da durangarren eta iurretarren elkartasuna?

Oso herri solidarioak dira. Guztiz inplikatzeko dira JAEDegaz; gazteak ere bai. Izan ere, Juan Orobiogoitia ikastetxeko ikasleak boluntario lanetara etortzen dira eskola orduetan guri laguntzeko. Astelehenetan talde bi etortzen dira. Astelehenetan, poltsak prestatzen ditugu, gero martitzenetan eta eguenetan banaketa egiteko. Talde bitan banatzen gara. Gutariko batzuk kontserba, pakete eta kaxen biltegian egoten gara poltsak antolatzen. Beste taldea elikagai freskoen gelan egoten da, fruta, patata, arrautzak eta ortuariak prestatzen.

Zer esango zenieke herriarrei?

Animatzeko eta bazkide egiteko. 15 euroren truke, herriarrek egonkortasun handia eskainiko diote JAEDi. Lagungarria izango zaigu hemen lanean gabiltzan aurrera jarraitzeko.

"Gure zozketa ohitura handiko egitasmoa da Durangaldean"

ESTHER EGIZABAL BARAÑANO JAED ELKARTEKO KIDEA
Egizabal zozketa solidarioaren saltzaileetarikoa da

E.H. ZOZKETA SOLIDARIOA

Urte ugari daramazu zozketa solidarioan boluntario.

Aspalditik nabil hemen. Izango dira hogeitau urte edo. Aurten martitzenetan nabil zozketa solidarioan txanda egiten.

Eta aurten ere sari ugari inguratuta ikusten zaitugu.

Denerik dugu. Sari nagusia autoa da, baina aurtengo bigarrena, nobedadea dena, ez da atzean geratzeko modukoa. Eurodisney egun bi igarotzeko bidaia zozkatzen gabilta, lau lagunentzat. Ume birentzat eta eurekin batera joateko nagusi birentzat. Beste nobedadeetarikoa bat zinema txartelena da. Aurten, Zugaza zinemaren 60 pelikula ikusi ahal izateko bonua dugu zozketan. Gainerakoan, erlojuak, smartphoneak, ordenagailuak, hiru telebista, Portugalera eta Kanarietara bidaia, txakolina... 50 sari guztira.

Zelakoak izan dira salmentak orain arte?

Ederto gabilta. Iazko data berdinekin alderatuta, gehiago saldu dugu. Gabonetako oporretan, kanpoan bizi den durangar asko etortzen da hona. Eta horien artean igarri dugu umetan eta gaztetan askok etxean jaso zutela zozketa solidarioa etortzeko ohitura, eta Gabonak igarotzerako jaioterrira bueltatzen direnean, eutsi egiten diotela ohitura horri. Pozik etortzen dira erosketak egitera. Era berean, hona etorri ezin direnak



Esther Egizabal.

ere badaude. Horiak ere eskatzen dizkigute txartelak. Aurrekoan, adibidez, semea New Yorken daukan ama bat etorri zitzaidan txartelak erostera. Semeak hemen egotea ezinezko zuela eta, txartelak erosteko eskatu zion amari.

Zenbat txartel ipini duzue salgai? 80.000. Akordatzeko naiz orain urte batzuk 50.000 ateratzen genituela. Iaz, 75.000 baino gehiago saldu genituen.

Egin deialdia; animatu herriarrek txartelak erostera.

Herriarrek ondo dakite zer lan egiten dugun, bestela ezin delako azaldu zergaitik saltzen dugun hainbeste. Uste dut JAEDen zozketa solidarioa ohitura handiko egitasmoa dela eskualdean. Ez bakarrik Durangon edo Iurretan, baita gainerako herrietan ere. Askok erosten dute.

Iurretako institutuko ikasleak elkartasun haziak ereiten

Juan Orobiogoitia institutuko ikasleak boluntariotza lanak egitera joaten dira astelehenero JAEDera

Ekaitz Herrera BOLUNTARIOTZA

Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko ikasleak astelehenero-astelehenero joaten dira JAEDen egoitzara elkartearen kideei elikagai poltsak prestatzen laguntzera. Egitasmo komunitarioa da, orain urte

bi pasatxo hasi zutena eta ikasleen artean egoera ekonomiko eta sozial larrian daudenenganako kontzientzia eragitea helburu duena. "Taldea bi etortzen dira eta txanda bi antolatzen ditugu. Taldeetarikoa bat hemen egoten da

poltsak prestatzen, eta bestea, liburutegian. Gero, rola aldatu egiten dira. Egia esan, oso lankidetzak polita da. Oso pozik gaude ikasleekin", adierazi du Esti Zurikarai JAED elkartearen kidea. Ikasle iurretarren lan boluntario hori prestakuntza curriculumaren barruan sartuta dago. DBHko hirugarren mailako ikasleak dira denak.

Fruta ikasle zaurgarriei

JAEDek egiten duen lanaren beste adierazle bat fruta ba-



Ikasle iurretarrak lan boluntarioan.

naketa da. Elkarteak fruta piezak banatzen dizkie gosaritarako Durango Institututuko eta Iurretako Juan Orobiogoitia institutuko ikasle zaurgarriei. Izan ere, JAED elkarteak dioenez, ikasleetarikoa batzuk "baraurik" joaten dira eskolara, eta horrek eragin zuzena izan dezake euren errendimendu akademikoan. Iaz, 1.194 euroko fruta ekarpena egin zuten Durango Institututuko ikasle zaurgarriei, eta 550 eurokoa Iurretako ikasleei.



Mireia Elkoroiribe, Ainhoa Olaso, Usue Egia, Mikel Urdangarin eta Gotzon Gomez. DURANGOKO AZOKA

Ainhoa Olaso eta Usue Egia, Sormen bekadun

Sortzaile durangarrek aurtengo azokaren Sormen Beka irabazi dute, Mikel Urdangarin idazle beasaindarraz partekaturiko proiektuan. Hiru artistek urtebeteko epea dute 'Gizaberetxoak' komikia egiteko. Joxe Azurmendi pentsalariarengan oinarrituko dute

J.G. / E.H. DURANGO

Iazko Sormen Beka Durangaldean geratu zen, Irati Bazeta abadiña-rraren proiektuagaz, eta aurtengo ere ez da eskualdetik mugituko, saria Usue Egia eta Ainhoa Olaso durangarrek eskuratu dute eta, Mikel Urdangarin filosofo beasaindarra lagun. Hiru artistek urtebeteko epea izango dute *Gizaberetxoak*. Joxe Azurmendiren *joanak eta etorriak* komikia egiteko, hau da, Joxe Azurmendi pentsalariarengan oinarrituriko obra kaleratzeko. Ainhoa Olaso zinemagileak istorioko gidoia egingo du, eta Usue Egia ilustratzaileak irudiak. Durangar biek Urdangarin beasaindarren *Gizaberetxoak gara*.

Joxe Azurmendi *feminismoarekin elkarrizketan* saiakera izango dute oinarri. Hori horrela, sortzaileek hainbat autore feminis- tagaz berbetan ipiniko dute Joxe Azurmendi zena; Angela Davi- segaz, Simone Weilegaz, Vanda- na Shivagaz eta Jule Goikoe- txeagaz, besteak beste. Elkarriz- ketak fikzionatu egingo dituzte, eta gogoetak landu, elkarren arteko zubiak eraikitzeke eta elkar aberasteko.

Hauek izan dira aurtengo epai- mahaikideak: Unai Iturriaga, Esti Albizu, Ainara Azpiazu *Axpi*, Adur Larrea eta Garazi Arrula. Honela arrazoitu dute erabakia: "Batetik, euskal pen- tsalari handi bat (gizonezkoa

bera) bere garaiko mundu mai- lako pentsalari feministekin elkarrizketan jartzen duelako, ezohiko formatu baten bitartez. Bestetik, hain seriotzat hartzen den mundu intelektuala umo- retik eta jarrera jostari bategaz lantzeko asmoa ere baloratu dugu", esan dute. Hamabi lan aurkeztu dituzte sariketara, "askotariko estilo eta tematika- dunak" denak ere. Baina *Giza- beretxoak* saritu dute, proiektu "anbiziotsua" delako.

Hiru sortzaileek 15.000 euroko beka jaso dute, Gerediaga elkar- tearen, Durangoko Azokaren eta Durangoko Udalaren eskutik. Datorren urteko azokan aurkez- tuko dute komikia.



Azokak egoera osasuntsua bizi du

Siadeco ikerketa etxeak Durangoko Azokari buruzko azterlana kaleratu du urtebeteko analisiaren ondoren. Ikerketak hainbat ondorio nagusi azaleratzeko balio izan du. Lehenengoa, honako hau: bisitari gehienentzat urteroko ekitaldi kultural garrantzitsua da Durangoko Azoka, eta horren erakusgarri da hategazko fideltasuna: bertaratzen direnen %90 urtero joaten dira berriro. Bigarren ondorioa, beste hau: bisitariak euskarazko kulturgintza hauspotzera etortzen dira Durangora. Generoaren ikuspegitik, mistoa da bisitarien profila, baina 45 urtetik beherakoen artean emakumeak dira nagusi: %65. Partaideen ikuspegiari dagokionez, Durangoko Azokak fidagarritasun ekonomiko sendoa eskaintzen die sortzaileei, eta ez hori bakarrik: azokaren eragina ez da abenduko lehenengo egunetara mugatzen, kontsumo-palanka legez ere eragiten duelako. Sortzaileen artean, gutxiengoa dira sorkuntza bizibide dutenak. Beste ogibide bat behar izaten dute bizitzeko. Halaber, azpimarratzekoa da sortzaileen %90ek garrantzi handia aitortzen diotela Durangoko Azokari.

Gazteria

Datu horiek eskuetan, azokak egoera "osasuntsua" bizi duela esan du Durangoko Azokak berak: "60 urteren ondoren, bizi-bizi dago eta ibilbide luzea izan arren gaztetuta dagoela erantsi dezakegu. Izan ere, bisitarien heren bi 45 urtetik azpikoak dira. Adin eta izaera anitzeko bisitariak ditugu azken urteetan egindako egokitzapenei eskerrak, arnas luzeko eredu arrakastatsu baten aurrean gauden seinale". Horren ildotik, ekimen biren garrantzia ere azpimarratu dute gazteei Durangoko Azokarako deia egiteko: Ikasle Goiza eta Gazte Eztanda. Azken horretan, azokak gazteei begirako apustua indartu du aurtan. Emaizta "agerikoa" izan da, zapatuan "gazteen presentzia handia" izan zen-eta azokako guneetan.

EHEk hizkuntza politika "ausartak" eskatu ditu

Alderdi politiko abertzaleak interpelatzeaz gainera, herri mugimenduko eragileak elkartasunean aritzera deitu zituzten

Jone Guenetxea DURANGO

Euskararen aldeko oihuak ozen entzun ziren zapatuan, Durangon, Euskal Herrian Euskararen manifestazioan. Mobilizazio burua Landako Gunetik irten zen, eta Santa Anan eman zion amaiera

ibilaldiari, bidean herriko kaleak zeharkatu eta gero. Manifestazio amaieran, hizlariak mezu hau helarazi zieten politikariei: "Euskararen zapalkuntza estrukturala izanik, agintari politikoek ardura berezia duzue, eta hiz-

kuntza-politika ausartak egitea eta benetako eztabaidak zabaltzea dagokizue". Alderdi abertzaleei dei egin zieten batez ere: "Orain egiten duzuen baino askoz gehiago egin zenezakete, ipini euskara erdigunean, egin politika euskaltzaleak!". Era berean, euskararen defentsan elkarlanera deitu zuten: "Bestelako Euskal Herri baten aldeko borrokan gabiltzanon arteko aliantzak indartzea dagokigu, desio dugun Euskal Herri askea eta zapalkun- tzarik bakoa eraikitzeke".



Manifestazio burua Zumalakarregi kalean gora. EHE



Saibi kaleko eraikina, garai bateko Udal Euskaltegia.

Adinekoentzako zentroa egin gura dute Saibi kaleko eraikinean

Partaidetza prozesu bat hasi gura dute. Gobernu taldeak "gura bako bakardadeari" aurre egin gura dio

Ekaitz Herrera DURANGO

Durango gobernu taldeak 2026rako aurrekontu-proposamena aurkeztu du. Udalak 45,3 milioi euro izango ditu datorren urtea kudeatzeko, aurtengo kopurua baino %5,55 gehiago, eta gobernu taldearen ardatz nagusietariko bat Saibi kaleko eraikinean, Udal Euskaltegia izandakoan, adinekoentzako zentro berri bat sortzen hastea izango da. Plazaratu duten proposamenaren arabera, milioi bat euroko inbertsioa egin gura dute datorren urtean, partaidetza prozesu baten bitartez zentro berri bat "definitzeko". Proiektu

horregaz, "gura bako bakardadeari" aurre egiteko asmoa duela esan du udalak.

Gobernu taldeak 5,27 milioi euroko inbertsioa egin gura du kirolean, eta udalerriko kirol instalazioak berritzeko asmoa iragarri du: Tabirako instalazio berriak eraikitzeaz gainera, biltegiak, erabilera anitzeko kantzak, fitness gela eta tenis pistak atondu gura dituzte. Arlo sozialean, aurrekontua %17,7 handitzea proposatu dute, eta Geu Be eta Herria auzo elkarten hitzarmenak "indartu" gura dituzte, besteak beste.

LABUR-LABUR

Birjinosteko etxebizitza tasatuen zozketa

Durango Udalak urtarrilaren 22an zozkatuko ditu Birjinosteko 22 etxebizitza tasatuak. San Agustinen egingo dute zozketa publikoa, 18:00etan. Parte hartzaileek udalaren webgunean dute informazioa, posta elektronikoz jaso duten pasahitza erabilita kontsultatzeko.

Hiru tailer berri merkatua biziberritzeko

Durango Udalak doako hiru tailer antolatu ditu merkatu plaza biziarazteko: erosketari adimenduna eta planifikazioa (abenduen 12an), gosari osasungarriak (abenduen 19an) eta etiketak irakurtzeko tailerra (urtarrilaren 9an). Jardunaldi guztiak 17:00etatik 18:30era emango dituzte.

'Durangotik Hegoaldera' lehiaketa, prest

Medicus Mundik eta Durango Udalak *Durangotik Hegoaldera* lehiaketaren hirugarren edizioa ipini dute martxan. Irabazleek Guatemalara bidaiatzeko aukera izango dute, hango lankidetzaproiektuak ezagutzeko. Lehiaketan parte hartzeko, 18 urtetik gorako hiru lagunek taldeak osatu behar dira, eta sexu eta ugalketa-osasunari loturiko proposamen bi aurkeztu beharko dituzte. Izena emateko epea abenduaren 15ean amaituko da.

Urteko azken bertso saioa hilaren 30ean San Agustinen

Berbarok bere bulegoan ipini ditu sarrerak salgai, Intxaurrendoko eraikinean. Prezioa 12 eurokoa da

Ekaitz Herrera DURANGO

Euskal Herriko zein eskualdeko bertsozaleek 2025eko azken hitzordua izango dute abenduaren 30ean, Durangon, egun horretan egingo du-eta Berbarok urteko azken bertso saioa. Honako ber-

tsolari hauek igoko dira eszenatokira, Leire Vargas gai jartzailearen esanetara abesteko: Aitor Bizkarra, Maialen Lujanbio, Nerea Ibarzabal, Unai Iturriaga, Andoni Egaña eta Alaia Martin. Saioa 20:00etan hasiko

da, San Agustin kulturgunean. Sarrerak eskuragarri daude honezkero Berbaroren bulegoan: euskara elkarteko bazkideek 8 euroan erosi ahalko dituzte, eta gainontzekoek 12 eurotan.

Sarrerak non

Sarrerak eguaztenetik aurrera erosi ahalko dira Berbaroren bulegoan, Durango Intxaurrendoko eraikinean 09:00-13:30/15:30-18:30 orduetartean. Telefono bidezko erreserbarik ez dutela egingo aurreratu du Berbarok.

PUBLIERREPORTAJEA

Nevers Ikastetxea: Ikaskuntza zentzumenen bidez eraikitzen

Nevers Ikastetxean esperientziatik, jakin-minetik eta aurkikuntzatik sortzen den ikasteko modu baten aldeko apustua egiten dugu. Haur Hezkuntzan, filosofia horrek gure tailer sentorietan hartzen du forma, ikastetxeko irakasleek kontu handiz diseinatu eta abian jarritako proposamen baten bidez

Sentitu ikasteko

Tailer hauen helburua sinplea eta sakona da aldi berean: haurrek mundua beren zentzumenen bidez esploratzea, esperimentatzea eta ulertzea. Testurak, koloreak, soinuak, material naturalak, argia, mugimendua... Jarduera bakoitza galderak eragiteko, sormena pizteko eta ikaskuntza esanguratsua bul-tzatze sortua da.

Tailer sentorietan onurak

Tailer sentorietak ez dira "gehi-garri" bat, tresna pedagogiko boteretsu bat baizik. Onura hauek ditu, besteak beste:

- Motrizitate fina eta lodia garatzea manipulazioaren eta mugimenduaren bidez.
- Sentsazioak, prozesuak eta aurkikuntzak deskribatzean hizkuntza indartzea.
- Autonomia sustatzea, proposamen bakoitzak erabakiak hartzea eta askatasunez aztertzea gonbidatzen baitu.
- Estimulazio kognitiboa: sailkatu, alderatu, eraldatu, kausa-efektua esperimentatu...
- Garapen sozioemotionala, materialak partekatzen, lankidetzan aritzen eta ikaskide bakoitzaren erritmoak errespetatzen ikasiz.



- Sormena eta irudimena areagotzea, material ireki eta egituratugabeekin lan egitean.

Azken batean: zentzumenen aktibatzen direnean, ikaskuntza handitu egiten da.

Gure irakasleek diseinatu eta garatutako tailerrak

Nevers Ikastetxearen nortasun-ezaugarrietako bat da, prozesu osoa —ideiatik hasi eta praktikan jarri arte— ikastetxeko irakasleen esku dagoela. Horrek funtsezko ekarpena ematen dio proiektuari:

- Ikasleak sakon ezagutzen dituzte eta jarduera bakoitza beren beharretara

egokitzen dute.

- Gure proiektu pedagogikoa-ekin koherenteak diren proposamenak diseinatu dituzte.
- Hurbiltasunetik, behaketatik eta erritmo indibidualakiko errespetutik laguntzen dute.

Tailer sentorietak nor garen islatzen dute: haurtzararen indarrean sinesten duen ikastetxe bat gara, maitasunez eta gertutasunez laguntzen duena, eta esperientzian oinarritutako hezkuntza aberatsaren alde irmo egiten duena. Nevers ikastetxean esploratzen eta gozatzen ikasten dugu. Horrela eraikitzen direlako bizitza osorako ikaskuntzaren oinarriak.

Bitor Garitaonandiaren omenezko ipuin lehiaketa Zaldibarren

Lanak urtarilaren 18ra arte aurkeztu behar direla azaldu du udalak. 8tik 12 urtera arteko umeek parte hartu dezakete. Sari ugari banatuko dute irabazleen artean

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Bitor Garitaonandia jaio zela 150 urte beteko direla eta, udalak hainbat egitasmo antolatu du; tartean, Garitaonandiaren omenezko lehenengo literatur lehiaketa. 8tik 12 urtera bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute txapelketan. Parte hartzaileek euskarazko ipuinak aurkeztu beharko dituzte. Lanak berraz eraturiko epaimahai batek aztertuko ditu, eta hiru hilabetezko gehieneko epean jakinaraziko dituzte irabazleak. Hainbat sari egongo da jokoan: 70 euroko, 50 euroko eta 35 euroko bina sari, liburu-sortak eta Durangaldeko liburu dendetan trukatzeko bonuak, besteak beste. Udalak argitu du ezingo dela Adimen Artifizialik erabili lanok egiteko. Lehiaketako ezaugarri guztiak Zaldibarko Udalaren web atarian kontsultatu daitezke. Idazlanak Zaldibarko Udalarari helarazi beharko zaizkio urtarilaren 18ra bitartean.

Bitor Garitaonandia Ariño 1876ko martxoaren 6an jaio zen, Zaldia plazako Zapatarikoa



Bitor Garitaonandiaren omenezko irudia, Zaldia plazan.

etxean. Euskaltzalea izan zen, musika konpositorea, tenorea, eta baita antzezlan idazlea ere. Musikaren alorrean, Zamorako katedraleko maisu tenore izan zen, eta Donostiako Orfeoia handitzen lagundu zuen XX. mende hasieran. Euskalgintza-aren eremuan, Argia astekaria-

ren sorreran parte hartu zuen, beste hainbat euskaltzaleagaz, eta garai hartan euskarazko hainbat antzezlan eta ipuin liburu idatzi zuen. 1925ean, Euskaltzaindiak euskaltzain urgazle izendatu zuen. Handik urte gutxira hil zen, 1929ko abuztuaren 3an, Donostian.



Egutegiaren aurkezpena egin eta gero, udaletxearen aurrean.

12 argazki eta 12 bizipen lurretako 2026ko egutegirako

'Mundu bat lurretan' proiektuaren barruan egin dute egutegia, migrazioaren gaia ardatz hartuta

A.B. IURRETA

Bertako 12 herritarri ateratako argazkiekin osatu dute lurretako 2026ko egutegia, eta irudi bakoitza pertsona horren migrazio esperientziagaz aberastu dute. Markel Onaindia kazetariak jaso ditu bizipen horiek guztiak, QR kodeen bitartez entzun daitezkeenak. Udalak *Mundu bat lurretan* proiektuaren barruan kaleratu du egutegia.

"50eko eta 60ko hamarkadan etorritako iurretarrei, baita geroago etorri direnei ere, ahotsa eta lekua eman gura izan dizkiegu, eta euren bizipen eta testi-

gantzei balioa eman", azaldu dute Oskar Koka alkateak eta Zorione Fundazuri zinegotziak. Onaindiak esan duenez, argazkiek eguneroko bizitza islatzen dute. "Puntu garrantzitsua iruditu zitzaidan integrazio prozesua erakusteko. Iurretara zelan heldu ziren, zelan integratu ziren eta lurretan zelan bizi izan diren azaltzen dute", gaineratu du.

Luciano Lorenzok, Meli Gonzalezek, Sara Driouchek eta Paco Puenteke parte hartu dute proiektuan, besteak beste. Denak oso eskertuta azaldu dira, eta "harro" parte hartzeko aukeragaitik.

Baserriko produktuen Gabonetako azoka Garain

11:00etan hasita, dozena bat baserritarren eta ekoizleren produktuak eskuratu ahal izango dira



lazko azokako irudi bat.

E.H. GARAI

Domeka honetan Garaiko plazara doazenek aukera apropos-aproposa izango dute Gabonei begirako produktuak eros- teko. 11:00etan hasita, dozena bat baserritarren eta ekoizleren produktuak eskuratu ahal izango dira herriko plazan. Era berean, txosna txiki bat ere atonduko dute. Txerriki mokaduak eta edariak eskainiko dituzte bertan.

Eguraldiak laguntzen ez badu, karpa txiki bat ipiniko dute azokara doazenez aterpetzeko. Garaiko Udalak eta Urkiola Landa Garapenerako Elkarteak antolatu dute azoka, kalitatezko elikagaiak eskuratzeko aukera emateko eta baita elikagai ekoizleei euren produktuak plazaratzeko aukera eskaintzeko ere.

Ekoizle eta sortzaileen azoka egingo dute domekan Otxandion

A.B. OTXANDION

Tokiko 16 ekoizleren produktuek eta 12 sortzailearen artisau lanek beteko dute, domekan, Otxandion plaza. Urtero legez, Gabonak ate joka daudela antolatzen duten baserriko produktu eta artisautza azoka da hau. 10:30ean zabalduko dute, eta 15:00ak arte askotariko erosketak egiteko aukera egongo da. Urterik urte sendotuz joan den azoka da domekakoa, antolatzaileraren esanetan.

Egitaraua osatzeko, Badaiotz elkartearen eskutik herri kirol erakustaldi parte hartzailea ere antolatu dute. Andikona plazan izango da, 12:30ean. Akelarre txarangak jai giroa alaituko du.

Ertzilla-Mallabienako argiztapena berritzute lurretan

A.B. IURRETA

Iurretako Udalak eraginkortasun energetiko handia duten azken belaunaldiko led argiak ipini ditu Ertzilla-Mallabienako industrialdean. Udal titulartasuna duten industrialdeko 151 argi ordezkatu dituzte, 285.610 euroko aurrekontuagaz. Horrela jakinarazi dute arduradunek. Bizkaiko Aldundiaren diru laguntza baliatu dute inbertsioari aurre egiteko.

Udal ordezkarien berbetan, argiteria ordezkaturik urtean 92.512 kWh energia aurreztuko dute eta CO2 isuriak 32,38 Tn/CO2 murriztu. Fakturazio energetikoan 18.502,4 euro aurreztuko dituztela gaineratu dute.

Lau emanaldi hogeit urteko ibilbidea ospatzeko

Anita Maravillas konpainia zornotzarrak bere obra garrantzitsuenetariko hiru berreskuratuko ditu 20. urteurrenerako; abenduaren 29an 'Jon Braun', abenduaren 30ean 'Kotondarrak' eta urtarrilaren 2an eta 3an 'Andereño' taularatuko dituzte

A. M. ZORNOTZA

Anita Maravillas antzerki konpainia zornotzarraren hogeit urteko ibilbidea ospatzeko, emanaldi sorta berezia prestatu dute abendurako eta urtarrilerako. Bere ibilbideko obrarik garrantzitsuenetariko hiru berreskuratuko dituzte, hain zuzen ere: *Jon Braun* (abendua 29), *Kotondarrak* (abendua 30), eta *Andereño* (urtarrilak 2 eta 3). Konpainiak hizkuntza propio bat garatu du urteotan, txotxongiloen bitartez emozioz eta samurtasunez beteriko istorioak kontatu eta publikoa hausnartzera gonbidatzeko. Adin guztietarako moduko ikuskizunak sortu dituzte beti.

Miren Larrea zornotzarrak eta Valentina Raposo txiletarrak 2005ean sortu zuten Anita Maravillas. Ordutik, hartu-eman sendoa izan dute Zornotzagaz, eta hainbat obra Zornotza Aretoan bertan estreinatu eta eskaini dute. "Anita Maravillasen



Anita Maravillas konpainiako kideak eta udal ordezkariak.

hogeigarren urteurrena ospatzeko moduko zeozer da. Konpainia hau gure kultur eskaintzaren funtsezko parte izan da, eta ohore bat da Zornotza Aretoan hiru ikuskizun hauek hartu ahal izatea. Txotxongilo-antzerkiaren

bitartez publiko guztiarentzat kalitatezko proposamenak gozatzeko aukera paregabea dira", azaldu du Koldo Bilbao kultura zinegotziak. Lau emanaldiatarako sarrerak salgai daude Zornotza Aretoaren webgunean.



Anartz Gandiaga zinegotzia eta Ainhoa Salterain alkatea.

Doan aparkatu daiteke Zelaietako 150 aparkalekutan

Zornotzako Udalak doako 150 aparkaleku egin ditu Zornotzako Zelaieta aparkalekuko lehenengo solairuan

A. M. BERRIZ

Aste honetan, Zornotzako Udalak doako 150 aparkaleku zabaldu ditu Zelaieta aparkalekuko lehenengo solairuan; txandakako sistemagaz funtzionatuko dute. Ibilgailu bakoitzak hiru orduz erabili ahal izango du gehienez. Udalak mugikortasuna hobetzeko helburuagaz hartu du neurria. "Neurri honek ez die bakarrik gure bizilagunen beharraz zuten; gure merkataritzaren eta ostalaritzaren bizitasuna indartzea eta udalerriaren erdiguneko bizi-kalitatea hobetzea ere bilatzen du",

azaldu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea. Plazak egunero erabili ahal izango dira, 07:00etatik 22:00etara, eta gehienez hiru orduz egon ahal izango dira bertan. Txandakako erabileraren horregaz, Zornotzako Udalak mugikortasuna hobetu gura du. Udalak beste hobekuntza batzuk ere egin ditu aparkalekuan: sarbide sistema tradizionala matrikula-irakurgailu bategaz ordezkatu dute, argiztapena eta seinalizazioa hobetu egin dituzte, eta bideozaintza sistema bat ipini dute gunearen segurtasuna bermatzeko.

Hausnarketarako deia Elorrion, haurreskolako sutearen harira

Abenduaren 5ean haurreskolako fatxadan piztu zen sutea "eragindakoa" izan zela ondorioztatu dute



Haurreskolako fatxada.

A. M. ELORRIO

Abenduaren 5eko 19:00etan Elorrioko haurreskolako kanpoaldean piztu zen sutea "gurata eragindakoa" izan zela azaldu du Elorrioko Udalak. Sutearen ondorioz, eraikinaren fatxada kiskalita geratu zen. Gertatutakoa gaitzetsi eta herritarrei "hausnarketa eta ardura ariketa bat" egiteko eskatu die udalak. "Gure herriko haur txikiak hezkuntza-gune bati eginiko eraso da hau, eta ezin da inolaz ere onartu", adierazi zuen Julene Lazkano alkatea. Suhiltzaileen eskuhartze azkarrari eskerrak sutea "garaiz" amatatu zen eta suak ez zuen eraikinaren beste alderik kaltetu. Suhiltzaileen arabera, minutu biko atzerapenagaz heldu izan balira "suak barrualdeari ere eragingo zion eta instalazio osoan zehar hedatuko zen".

Ernaik Berrizko udaletxetik Espainiako bandera kendu du

Ernaik frankismoko eta Espainiako ikurren kontrako hainbat ekintza egin du Durangaldean

A. M. BERRIZ

Ernai gazte antolakundeak frankismoko eta Espainiako ikurren aurkako hainbat ekintza egin du Euskal Herrian zehar, baita Durangaldean ere. Berrizko udaletxetik Espainiako bandera bat eta Elorrioko hilerriko plaka frankista bat kentzeaz gainera, Durangoko epaitegian pintaketak eta Zornotzan ekintza bat ere egin dituzte. "Euskararen kontrako oldarraldi judizialaren kontra oldartu eta gure hizkuntzaren kontra aritzen direnak markatu ditugu. Bestalde, kons-

tituzio egunean, gure zapalkuntza nazionala eta soziala betikotzen duen tresna horren aurkako agerraldia egin genuen Zornotzan", jakinarazi zuten.

Abenduaren 6an Durangon ipini zituzten baturiko sinbolo horiek guztiak. "Euskal Herrian zehar, eskualdean legez, hainbat ekimen egin dugu. Horrek hutsak harrotu ditu hainbat sektore politikotan, Ernai jo puntuan jarrita", gaineratu zuten. Hori salatzeke, Ernaiko kideek agerraldia egin zuten martitzenean Bilbon.

**anboto
kide**

Anbotokideen
txokoa

ABENDUKO ZOZKETAK



Xiberu tabernan
bi gosari bikoitz. Zornotza.



Alcamporen eskutik Auchan
produktuez osaturiko otzara.



Herri Urratseko abestien binilo bikotza.

Okm:

batzen gaituen
distantzia

*Zozketa hauetan parte hartzeko
eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide
eta parte hartu gure
zozketetan!



Elkartasunez beteriko elikagai eta jostailu bilketa Abadiñon

Abadiñoko Udalak eskerrak eman diezkie kanpaina hau
aurrera ateratzeko laguntzen aritu diren gazteei

M.Z. ABADIÑO

Hezkuntza komunitateak, Adarrak Sustar programak eta Janarien Bankuko boluntarioek bultzatuta, Abadiñon elikagai eta jostailu bilketa egin dute beharrezana dutenentzat. "Udalak eskerrak eman gura dizkie herritar guztiei erakutsi duten elkartasun esku-zabalagaitik, baita bilketan parte hartu duten ikasle boluntarioei ere. Pertsona guztien laguntzari eskerrak posible izango da premiarik gehien duten abadiñarrei laguntzea", adierazi du Edurne Maguregi Ongizate zinegotziak.



Bilketako argazki bat.

Aurrekontu parte hartzaileetako 45 proiektu aukeran Abadiñon

Herritarrek abenduaren 30era bitartean izango dute
aukera botoa emateko; Internetez zein aurrez aurre

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko aurrekontu parte hartzaileen prozesua bozketa fasean sartu da dagoeneko. Herritarrek egindako proposamen guztiak aztertu eta gero, beharrezko baldintzak betetzen dituzten 45 proiektu pasatu dira azken bozketara, eta, orain, abadiñarrek sei proiektu aukeratu beharko dituzte. Fase honetan, Abadiñon errolatuta dauden 16 urtetik gorako herritar guztiek parte hartu ahal izango dute. Bakoitzak sei boto eman ahal izango ditu. Abenduaren 30era arte eman daiteke botoa,

udal bulegoetan, udaletxean, Errota Kultur Etxean, Mediatekan edo adinekoen zentroan. Internet bidez ere egin daiteke.

"Legegintzaldi honetan, berebiziko garrantzia eman diogu herritarren parte hartzeari, uste baitugu denon artean lan eginda eraikitzen dela herria. Aurten, gainera, diru partida handitu dugu, herriarren inplikazioa ahalik eta handiena izatea gura dugulako. Eskerrik asko 188 proposamenak aurkeztu dituzuen herritar guztioi", azaldu dute gobernu taldeko kideek.

Sagastako errepidea konponduta, Mendiolako bideari helduko diote

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak amaitu ditu Sagasta auzoko bidea konpotzeko lanak. Lanok 255.000 euroko inbertsioa izan dute. Udalak azaldu duenez, lehenengo urratsa bazterbideak konpontzea izan zen; ondoren, errepidea konpondu dute. "Lan hauekin auzoko segurtasuna indartu eta mugikortasuna erraztu dugu", esan dute.

Bestalde, udalak jakinarazi du laster Mendiolako errepidea konpontzeko lanak hasiko dituztela. Hain zuzen ere, Alfredo Baeschlin kaletik Atxa-Txiki enpresarainoko tartea konponduko dute. 264.145 euro erabiliko dituzte lan horietarako.

Markai jaio da, Sorland komunikazio agentziaren eskutik

M.Z. ABADIÑO

Sorland komunikazio agentziak eta Orain Adimen Artifizialeko zentroak adimen artifizialen bitartez marken ospea denbora errealean neurtzen duen soluzio teknologikoa sortu dute: Markai. Lengoia Naturalaren Prozesamenduan (NLP) oinarritutako teknologia honi eskerrak, milioika datu digital identifikatu, aztertu eta interpretatu ahal izango dituzte. Gainera, informazioa modu bisual, argi eta erabilgarrian ipintzen du erabiltzailearen eskura. Markai egunean 24 orduz lan egiten duen komunikazio aditu bat alboan izatearen parekoa dela nabarmendu dute sortzaileek.

Izurtzako plazako lanak, lizitaziora



Izurtzako plazako argazki bat.

M.Z. IZURTZA

Izurtzako Udalak berriro ateratu du lehiaketara plaza eraberritzeko proiektua; izan ere, lehenengo saiakerara ez zen proposamenik aurkeztu. Udalak jakinarazi duenez, enpresa interesdunek urtarilaren 15era arte izango dute aukera euren proposamenak aurkezteko. Udalak igo egin du lanok egiteko aurrekontua, 608.302 eurotik 634.000 eurora. Behin lanak esleitura, iraileko jaien ondoren hasiko lirateke, aurreikuspenak betez gero.

Mañariko historia berbagai abenduaren 19ko hitzaldian

Juan Manuel González Cembellín historialariak emango du berbaldia, datorren barikuan, Ursula Donearen egoitzan



Ursula Doneak Errose Bustintza kultur etxean du bere egoitza.

J.D. MAÑARIA

Gerediaga elkarteak, Ursula Donea elkarteak eta Mañariko Udalak *Las historia de Mañaria* izeneko berbaldia antolatu dute elkarlanean. Abenduaren 19ko barikuan izango da, 19:00etan, Ursula Donearen egoitzan.

Juan Manuel González Cembellín izango da hizlaria. Gaztelaniaz emango du berbaldia. Historialaria izateaz gainera, González Bilboko Arte Sakratuaren Museoko zuzendaria ere bada. Bizkaiko historiaren ikerketan lan sakona egin du.

Abenduaren 31n, Mañariko II. San Silbestre herrikoia

Urteko azken egunerako 7 kilometroko mendi martxa eta 9,8 kilometroko lasterketa antolatu dituzte



Lehenengo edizioako argazki bat. @MANARIKOU DALA

M.Z. MAÑARIA

Abenduaren 31n, II. San Silbestre Herrikoia egingo dute Mañarian. Antolatzaileek 7 kilometroko mendi martxa eta 9,8 kilometroko lasterketa antolatu dituzte. Mendi martxa 10:30ean hasiko da eta 400 metroko des-

nibel positiboa izango du; lasterketa 11:00etan hasiko da eta 650 metroko desnibel positiboa izango du.

Parte hartzeko, bost euro ordaindu beharko dira, eta izen-ematea egunean bertan egingo da, 9:30ean hasita.

'Aitatxo' dokumentala Mallabian, hilaren 21ean

Anakotz Lasarte berriztarrak sorturiko 'Aitatxo' dokumentala asteen estreinatu dute Gasteizen. Hurrengo emanaldia eskualdean izango da, Mallabian. Hurrengo domekan proiektatuko dute, abenduak 21, 18:00etan, Mallabiko frontoian

Maialen Zuazubiskar MALLABIA

Anakotz Lasarte berriztarrak eta Iratxe Uribelarrea mallabitarrak seme bi galdu zituzten. Orain 12 urte, Gari; dolu perinatala izan zen. Eta orain zortzi urte, 2017an, Ekai, jaio eta egun gutxira, ebakuntza batean. Bizi esperientzia hori eta doluak utzitako ondorioak kontuan hartuta, Lasartek *Aitatxo* dokumentala sortu du. "Dokumentalagaz, alde batetik aitaren papeira erakutsi gura dugu, eta, bestetik, egoera horretan dauden familiei esperantza mezu bat eman gura diegu. Baliabide bat izan dadin dolu terapietarako zein egoera horretan dauden familientzat", azaldu du Lasartek.

Dokumentalean lau familia ageri dira, lau aita: Lasarte eta beste hiru. Beste hiruretako bat Mallabian bizi den Fernando Alonso eibartarra da. Alonsok eta honen

emazte Amaiak Larraitx alaba galdu zuten. 32 urte zituen hil zenean. Dokumentalak lau aita hauen historioak eta bizipeank jasotzen ditu.



Anakotz Lasarte eta Fernando Alonso, dokumentalaren grabazioan.

Bizkaiko txakolin dastatzea Apatan, abenduaren 19an

M.Z. ATXONDO

Apatako plazak Bizkaiko txakolin dastatzea hartuko du abenduaren 19an. Berbalagunek antolatu du ekimena eta 19:00etan hasiko da.

Dastatzean parte hartzen dutenak Roberto Sarriugarte ardo adituaren eskutik murgilduko dira txakolinaren munduan. Bertan, Bizkaiko Txakolina jatorri deiturako hiru txakolin dastatuko dituzte, eta izen propioa duen ardo horren historia eta gaur egungo txakolin mota desberdinak ezagutuko dituzte.

Dastatzean parte hartu gura duenak 639 400 786 zenbakira deituta edo idatzita eman beharko du izena.

ROBERTO SARRIUGARTE ARDO ADITUAREN ESKUTIK MURGILDUKO DIRA DASTAKETAN

BASERRIKO

PRODUKTUEN

GABONETAKO

AZOKA

Garai

Abenduaren 14an

Plazan, 11:00etatik aurrera

40 Minutu Rockeko taldeak

40 Minutu Rock elkartasun jaialdiak aurtengo edizioan zeintzuk taldek parte hartuko duten iragarri du. Mays, Brigade Loco, Merina Gris, Kiliki, Zeker, Naxker, Marte Lasarte, EH Sukarra, Non Servium, Les Testarudes, Neomak, Nafarroa 1512 eta Ezezez arituko dira. Karpa txikian, Chicabeat & Rockv Violencia, Matah, Labar, Adur, Sembrando Kaos, DJ Pibikens eta Kene.MP3.



Aurreko edizioko argazki bat. @40MINUTUROCK

DURANGALDEA ASTEON

Minbiziaren Aurkako Elkartaren diru bilketa

DURANGO Durangoko Minbiziaren Aurkako Elkartea kalera irtengo da abenduaren 14an. 12:00etatik 14:00ak bitartean, Andra Mariko elizpean egongo dira, Arrupe Elkarteko kideekin batera. Bilketan jasotako diruagaz arlo onkologikoko beharrezanean erantzutea da helburua.



MIREN ITZIAR SANCHEZ ROBLES FARMAZIA.

Gabonetako erakusketa lehiaketa martxan Abadiñon

ABADIÑO Abadiñoko Mertakari Elkartek (AME), Abadiñoko Udaren laguntzagaz, Gabonetako Erakusleihen Lehiaketa antolatu du hirugarren urtez. Guztira, herriko 11 establezimenduk parte hartuko dute lehiaketan, eta herritarrek abenduaren 23ra arte bozkatu ahal izango dute. Botorik gehien jasotzen duen erakusleihoak 500 euroko saria irabaziko du, eta hurrengoak 300 eurokoa. Herritarrentzat ere 200 euroko sari bi egongo dira.



Izar Gazteko kideak.

Izar Gaztearen twist solidarioa EITB Maratoiarako

DURANGO "Izan gira Euskal Herri rock and rolling" dio Niko Etxart musikari zuberotarraren kanta ezagunak, eta Izar Gazteak kantu horren doinura dantzatu du EITB Maratoiko twist solidarioan, udalagaz lankidetzan. "Izan gira bizipoza rock and rolling" adierazi dute, eta zahartze osasuntsua aldarrikatu. Zahartzaro osasuntsua eta ikerketa zientifikoa bultzatzea izango da, hain zuzen ere, EITB Maratoia- ren aurtengo kausa. Egun handia abenduaren 18an izango da eta Bizi bedi bizipoza! izango du goiburua.

GUTUNAK

Idatzi zure gutuna eta bidali!

Zure gutuna helarazteko helbidea: Bixente Kapanaga 9 - lurreta
DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO:
• Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia

Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).



POLITIKAN
JESICA RUIZ
PSE-EE

Aisialdirako planak Gabonetan

Badatoz opor egunak: batzuek irrikaz espero dituzte, baina beste batzuek ez zaizkie gustatzen, nostalgia, pena... eragiten baitiete.

Egunotan guztiek disfruta dezaten, 30 jarduera baino gehiago antolatu dira 19 elkarteren parte-hartzearekin. Hainbat eremutako elkarteak ditugu: kulturalak, sozialak, merkatariak eta auzotakoak. Elkarrekin herria era batera edo bestera aberasten dute; beraz, zaindu ditzagun. Horiei esker, hainbat ekimen antolatzen dira Durangon, hala nola kontzertuak (Orfeoia, Arandoñoa, Jaizale, Tabira musika banda, Broken Salad herriko taldea, Herri maitea), auzotako jolasak (Muruetatorre, San Faustoto eta Otamotzena elkarrekin esker), Auzo Alaik antolatutako kanpaiak, dantzak (Kriskitin dantza taldeari esker) edota Inurri Eskaut taldeak antolatutako gabon jaiak. Arlo sozialeko elkarteak ere aterako dira plazara: minbiziaren aurkako elkartea, Asebier eta DYA, eta, urtero legez, JAEDen zozketa egingo da.

Eta, noski, urteroko klasikoak ere izango ditugu: izotz pista abenduaren 20tik hasita, Olenzero eta Mari Domingi, Erregeak, haur parkeak, Dantzaro eta Luis Ibañezen Belenen erakusketa.

Egun hauek atseginak izatea eta Durangoko herritar guztiekin batera gozatzea opa dizuegu.

> anboto

Gertuko Koop S.,
Gizarte Ekimenekoa

Bixente Kapanaga, 9
48215 lurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazioa: Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Goretti Alonso Armendia.
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Marketina: Deñe Izaga Yeregui.
Maketazioa: Eider Alberdi Bengoa.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.





foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua



Gabonak

2025

Ondo maite zaituenak
Gabonak hobetuko dizkizu.

Zorionak eta urte berri on!

Hipermerkatoa
EROSKI
Abadiño



GABONAK

ABADIÑO

ABENDUAK 13

12:00 - 14:00 Gabon kantak De Norte a Sur Taldearen eskutik.

ABENDUAK 14

18:00 Zinea: 'Sorda'. Txanporta Kultur Etxean.

ABENDUAK 17

17:00 Ipuin kontalaria: Ana Apika. Udal Mediatekan.

ABENDUAK 20

10:00 Picke ball torneo. 16 urtetik aurrera. Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

11:00 - 14:30 Neguko azoka. Traña-Matienako Eskolako aterpean.

16:30 - 18:30 Ur puzgarriak. Udal igerilekuak. 8 urtetik beherakoak heldu batek lagunduta

19:00 Antzerkia: Jaque mate. Grupo Nostra Terra. Errota Kultur Etxean.

19:00 Frontenis Txapelketa. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 21

10:00 - 13:30 Gabonetako xake txapelketa. Traña-Matienako frontoia

13:00 Gabonetako kontzertua. Abañoako kantariak. San Prudentzio elizan.

17:00 Ikuskizuna: 'Boom Boom! Txulalai'. Probalekuan.

ABENDUAK 23

17:00 Ikuskizuna: 'Magia zure baitan dago'. Liuba magoa.

Traña-Matienako frontoian.

18:00 Umeentzako tailerrak. Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 24

9:00 Astxikira igoera. Txanporta plazan.

10:15 Astxikira igoera. Sagasta

11:30 Gabonetako lasterketa. Muntsaritzen.

17:00 Olentzero eta Mari Domingigaz kalejira. Traña-Matienan, Muntsaritzen, Txanportan.

ABENDUAK 26

19:00 Gabonetako kontzertua. Oscar Rodriguez Pastora (organoa) eta Marco Cubillas (tronpeta)

ABENDUAK 27

19:00 Bakarrizketa: Gregoria. Txanporta Kultur Etxean.

ABENDUAK 27-28

10:00 - 12:30 / 16:00 - 18:30 X. Abadiño Cup

ABENDUAK 28

17:00 Ikuskizuna: Denak plazara. Pontx pailazoa. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 28-29-30

11:30 - 13:30 / 16:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Jolasgunea. 0-9 urte Probalekua. 10 urtetik aurrera Traña-Matienako frontoian.

ABENDUAK 29

19:00 Kontzertua: Herri Maite. Errota Kultur Etxean.

ABENDUAK 30

19:30 Txokolatada eta diskofesta. Zelaietako frontoian.

URTARRILAK 2

16:30 - 18:30 Umeentzako tailerrak. Probalekuan.

URTARRILAK 3

10:00 Pickle ball. Ate irekiak. 16 urtetik aurrera. Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

16:00 - 21:00 Areto Futbol Txapelketa. Traña-Matienako erabilera anitzeko pabilioian.

URTARRILAK 5

18:00 - 20:00 Errege magoen kabalkada. Muntsaritzen, Zelaietan, Traña-Matienan.

ATXONDO

ABENDUAK 19

Arratsaldean Olentzerori eta Mari Domingiri etorrera. Andasto dantza taldearen saioa eta txokolatea.

ABENDUAK 23

18:00 Antzerkia: 'Pulcinella Txio-Txinela'. Zurrunka antzerki konpainia. Eskolako gimnasioan.

ABENDUAK 30

Goizean Bizikleta ginkana.

Gabon jaiak Berrizen

Abendua

19 Uretako puzgarriak
16:00 - 19:00
Bakarrizketa
20:00 "NININI"
AnttonTelleria.
8€ (bazkideak 6€)

21 Gimnasia erritmikako erakustaldia
12:00 Kiroldegiko kantxan.

26 Gabonetako ihes gela
"Olentzero eta Mari Domingiren desagertpena"
12:00-13:30 | 17:00-18:30
Kultur Etxe zaharrean

Urtarrila

2 Eleder Magoa
"Magia mundiala"
17:00 Kultur etxean
6€ (bazkideak 4€)

3 Gabonetako haur parkea
12:00 - 13:30 | 16:00 - 19:00
Olakueta fronteian

5 Errege eguna
17:30 Erregeen kabalgata.
Komentulik hasita.
Ondoren txokolatada

24 Olentzero eta Mari Domingi
9:30 Olakueta Plazan,
auzoetara joateko.
17:30 Olentzero eta Mari Domingirekin
irteera Berrizko udaletxetik
Olakueta plazara. Animatu eta
baserritar jantzila elorri!

27 Ipuin txokoa
12:15 "Ketuek kontu, arkalaz batu"
Oihana Etxegibel
Kontzertua
19:00 Gospel kontzertua
Aretha Gospel "SPIRIT"
San Juan Ebanjelari elizan

Zorionak eta Urte Berri On!

12



BERRIZ

ABENDUAK 19

16:00-19:00 Uretako puzgarriak, igerilekuan.

20:00 ‘Ninini’ Antton Telleriaren bakarrizketa, Kultur Etxean (8€).

ABENDUAK 21

12:00 Gimnastika erritmikako erakustaldia, kiroldegiko kantxan.

ABENDUAK 24

09:30 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera auzoetara joateko, Olakueta plazan.

17:30 Olentzerori eta Mari Domingirekin kalejira, udaletxetik Olakueta plazara.

ABENDUAK 26

12:00-13:30/17:00-18:30, ‘Olentzero eta Mari Domingiren desagerpena’ gabonetako ihes gela, Kultur Etxe zaharrean.

ABENDUAK 27

12:15 ‘Kontuek kontu, arkalaz batu’ Oihana Etxegibele gaz ipuin txokoa, Kultur Etxean.

19:00 Aretha Gospel ‘Spirit’ gospel kontzertua, San Juan Ebanjelari elizan.

URTARRILAK 2

17:00 Eleder magoaren ‘Magia mundiala’, kultur etxean (6€).

URTARRILAK 3

12:00-13:30/16:00-19:00 Gabonetako Haur Parkea, Olakueta frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, komentutik hasita.

DURANGO

ABENDUAK 20

Izotz pista zabalik urtarilaren 6ra arte. Landako Gunean

09:00 – 20:00 *Rastrilloa* Andra Mariko elizpean (Inurri Eskaut)

10:00-14:00 ‘El Arbol – Bidelagun’ Azoka solidarioa Madalenan (Auzo Alai)

17:00 – 18:30 Umeentzako jolasak elizpean. (Inurri Eskaut)

19:00 Ospakizuna Andra Mariko Basilikan (Inurri Eskaut)

12:00 – 14:00 Mahai informatiboak Andra Mariko elizpean. Minbiziaren Aurkako Elkartea DYA eta Asebier gaixotasun arraroen elkarte.

17:00-18:00 Txokolatada Madalenan (Auzo Alai)

19:00 Kriskitin dantza taldearen, Elgoibarko Haritz dantza taldearen eta Jaizaleren emanaldia. San Agustin Kulturunean (Sarrerak Arte eta Historia Museoa salgai)

20:00 Geu Be elkartearen aldeko rock kontzertua Durangoko Orfeoia eta musika bandaren eskutik. Landako Gunean. (Sarrerak JAEDen standean salgai)

20:45 Otzararen zozketa. Madalenan. (Auzo Alai)

21:00 Gabon zaharretako kanpaiak. Madalenan (Auzo Alai)

21:00-24:00 DJ Gabi Madalenan. (Auzo Alai)

ABENDUAK 21

10:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisau azoka. Andra Mariko elizpean.

12:00 Gabonetako txistu kontzertua, Jaizaleren eskutik. Barandiaran nagusien egoitzan

12:30 Durango kantari: Egundo i Taldea. Merkatu plaza berrian.

18:00 Ipuin kontalaria (Oihana Etxegibel). Andra Mariko elizpea

19:00 Tabira musika bandaren kontzertua. San Agustin Kulturunean

ABENDUAK 22

11:30 – 13:30 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

16:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisau azoka. Andra Mariko elizpean.

17:00 – 20:00 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera

saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

18:00 Ipuin kontalaria (Oihana Etxegibel). Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 23

11:30 – 13:30 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartela aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

16:00 – 20:00 Eixu elkartearen artisau azoka. Andra Mariko elizpean.

17:00 – 20:00 Dendak Bairen bertako merkataritza sariak: erruleta baten bidez, unean uneko sariak irabazteko aukera saltokietako erosketa txartelak aurkeztuta. Andra Mariko elizpean.

ABENDUAK 24

18:30 Olentzeroren eta Mari Domingiren kalejira. Ibilbidea: Durangoko Institutuan, Ermodo kalean, Zumalakarregi kalean eta Ezkurdin.





GABONETAKO PROGRAMA

2025-2026
durango.eus





16:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna: 'Zerua lapurtu dute!'
Landako Gunean. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera salgai Kutxabanken webgunean eta Arte eta Historia Museon.

19:00 Pirritx, Porrotx eta Marimototsen ikuskizuna: 'Zerua lapurtu dute!'
Landako Gunean. Sarrerak abenduaren 16tik aurrera salgai Kutxabanken webgunean eta Arte eta Historia Museon.

21:30 Kontzertua: Broken Salad.
Plateruenean.

ABENDUAK 27
12:30 – 14:00 Balkoiak Gabonetarako atontzeko tailerra
Muruetatorre auzoan (Muruetatorre auzo elkarte)

12:30 – 14:30 Durangoko orfeoiaren kalejira:
Plateruen plaza, Ezkurdi, Andra Mariko elizpea, Alde Zaharra

19:00 Dantzaldia: Lorratz taldea. Andra Mariko elizpea

19:00 Herri Maiteren akordeoi kontzertua. Kurutzesantun.

ABENDUAK 28
13:00 Gabonetako txistu kontzertua. Jaizale eta Durangaldeko txistulariak, abeslariak, hariak, metalak, pianistak eta trikitilariak.
Plateruenean.

ABENDUAK 28-30
11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00 Umeen Gabonetako Parkea.
Landako Gunean. Umeak doan. Helduak 1 €

ABENDUAK 29
12:30 Ume eta familientzako bizikleta tailerra eta irteera.
Ezkurdin (Euria bada, Nevers ikastetxean)

20:00 Organo kontzertua lau eskutara: Pablo Marquez eta Atsuko Takano. Andra Mariko basilikan (Arandoño kultur elkarte)

ABENDUAK 31
12:00 Jolas Eguna: Kanpaikada txiki. San Fauston. San Faustoko auzo elkarte.

URTARRILAK 2-4
11:00 – 14:00 eta 16:00 – 20:00 Umeen Gabonetako Parkea.

Landako Gunean. Umeak doan. Helduak 1 €

URTARRILAK 2
16:30 Jolas Eguna: Memoriarekin kozinatzen tailerra. Otamotzena auzogunean. (Herria auzo elkarte)

URTARRILAK 5
18:45 Errege magoen kabalkada.
Ibilbidea: Frai Juan Zumarraga, Ezkurdi (19:15), udal plaza (19:35, geldialdia), Andre Maria (20:15), San Fausto (21:15)

URTARRILAK 6
13:00 JAEDen zozketa. Andra Mariko elizpean.

URTARRILAREN 6RA ARTE
Jaiotza erakusketen ibilbidea
Egilea: Luis Ibáñez. Orduategia (Madalena ermita): **18:00-20:00.** Bisita gidatuari buruzko informazioa: Nagusien Udal Egoitzan.

ELORRIO

ABENDUAK 18
18:30 Musika eskolako ikasleen gabonetako kontzertua,
frontoiko karpan.

ABENDUAK 19
09:30 Herri eskolako umeen Santamas azoka, bertso eta kantekin.

ABENDUAK 20
11:30 umeen Santxibiri lasterketa.

12:30 helduen Santxibiri lasterketa.

ABENDUAK 21
17:00 'Check out' klown ikuskizuna Arriolan.

ABENDUAK 24
10:30-15:00 VII Gabonetako Artisau eta Sortzaileen Azoka plazan.

18:00 Olentzero eta Mari Domingi elizpean.

ABENDUAK 27
10:00-13:00 puzgarriak LH 4., 5., eta 6. mailetako ikasleentzat

kiroldegiko igerilekuan.
ABENDUAK 31
09:00 'Erdellakoekin mendira!' (Atxaurrutxagane - Gongeta) plazan.

URTARRILAK 1
09:00 'Guztiok Erdellara!' plazan.

URTARRILAK 5
18:30 Errege Magoen etorrera elizpean.

GARAI

ABENDUAK 14
11:00-13:00 Jostailuen truke azoka frontoian.

11:00 Baserritarren neguko azoka plazan.

ABENDUAK 19
19:00 Kantulagun XXXXX

ABENDUAK 20
17:00 Plaza dantzen ikastaroa. Frontoian.

19:00 Eñaut Elorrietaren kontzertua Elizabarrin.





Mañaria
Jendea da berria

Mañariko Udalak gabon zorientsuak opa dizkizue

www.mañaria.eus

 [manarikoudala](#)





ABENDUAK 24

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera.
Antolatzaileak: udala eta jai batzordea.

ABENDUAREN 14TIK 28RA

Gabonetako marrazki lehiaketa.
Artelanak udaletxe atariko buzoian utzi behar dira.

ABENDUAK 31

10:00 Arakaldora igoera plazatik.

12:30 Kopaua plazan.

URTARRILAK 3

17:30 Umeentzako jolasak.
Ondoren, merendola.

IURRETA

ABENDUAK 12

09:00-12:30 / 16:30-19:30
Iurretako Elkartasun Azoka,
Ibarretxe kultur etxean.

ABENDUAK 16 ETA 18

20:00 Abenduko Koplen
entseguak, Aita San Migel plazan.

ABENDUAK 17ra bitartean

Iurretako gutun-postal lehiaketa, 13 urtetik beherako umei zuzenduta. Gutun eta postalak Ibarretxe kultur etxean aurkeztu behar dira, izen-abizenak, adina eta telefono zenbaki bat ipinita.

ABENDUAK 19

19:00 ‘Casi’ helduentzako ipuin kontalaria (Virginia Imaz), Ibarretxe kultur etxean (sarrera gonbidapenagaz).

ABENDUAK 23

10:00 Abenduko koplak abestuko dira, etxerik etxe, Aita San Migel plazatik irtenda.

Goizean zehar, eskolaumeek euren gutunak ekarriko dituzte Ibarretxe kultur etxera.

10:15 ‘Errekari Mari’ txotxongilo ikuskizuna (Rosa Mari Martinez), 2-3 urteko umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

10:45 ‘Errekari Mari’ txotxongilo ikuskizuna (Rosa Mari Martinez), 4-5 urteko umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

11:00 ‘Gora koplak’ ikuskizuna, LH1etik LH4rako umeentzat, Ibarretxe kultur etxean. Eskolagaz hitzartutako ekitaldia.

12:00 Olentzerori eta Mari Domingiri harrera, Aita San Migel plazan. Ondoren, trikitilariak alaitutako kalejira, herrian zehar (euria eginez gero ekitaldia karpan izango da).

ABENDUAK 26

11:30 Iurretako gutun-postal lehiaketaren sari banaketa Ibarretxe kultur etxean.

12:00 ‘Ipuin porrusalda’ ipuin kontaketa Amaia Egidazuren eskutik Ibarretxe kultur etxean (sarrera gonbidapenagaz). 3-5 urteko umeak heldu batek lagunduta egongo dira.

ABENDUAK 26 ETA 27

17:00-20:00 Umeentzako Gabonetako Parkea (ludoteka, puzgarriak, jolasak eta tailerrak), Kepa Arroitauregi frontoian.

ABENDUAK 29 ETA 30

Gabonetako tailerrak: Txiki Chef, Gabonetako errezeta

bereziak.

09:30-11:00 LH1etik LH4ra bitartekoentzat.

11:30-13:30 LH5etik DBH2ra artekoentzat. Izena emateko, abenduaren 18ra bitartean, Ibarretxe kultur etxean edo kultur-etxea*@iurreta.eus* emailera idatzita.

MALLABIA

ABENDUAK 18

19:00 Gabonak dira eta etxean aulki huts bat dugu. Nola bizi dolua Gabonetan, Kontzejuzarrean. Hizlaria: Iñaki Peña doluan aditua. Ant.: Gaba Baltza. Lag.: udala.

ABENDUAK 19

17:30 Ping-pong txapelketa. 12 urtetik gorakoentzat Eskolako frontoian. Ant.: A.D. Mallabia F.T.

ABENDUAK 21

18:00 ‘Aitatxo’ dokumentala herriko frontoian. Ant.: Zaparrada elkarte. Lag.: Udala

ABENDUAK 23

10:00 Eskolako ikasleak herrira jaitsiko dira gabon kantak

abestera. Ibilbidea: Haurreskola, farmazia, udaletxea eta jubiletxea. Euria bada, eskolako frontoian. Antolatzailea: eskola

Olentzeroren eta Mari Domingiren etorrera eskolan. Antolatzailea: eskola eta Zaparrada elkarte

ABENDUAK 24

18:00 Olentzeroren eta Mari Domingiren laguntzaileek, galtzagorriek, opariak banatuko dituzte herriko frontoian. Antolatzailea: udala

ABENDUAK 27

10:00 Baserririk baserri gabon eskean. Ibilbidea: Longa, Gereaa eta Osm. Antolatzailea: Mendibil abesbatza.

ABENDUAK 28

17:30 - 19:00 Harri Herrirako Bidea: emakumezko eta gizonezko harrijasotzaileak herriko frontoian. Antolatzailea: udala

URTARRILAK 2-3

11:30-13:30 / 16:30 - 19:30
Gabonetako Haur Parkea



Zaldibar
Elizateko
Udola

ZALDIBARKO
GABON
EGITARAU 2025

ABENDUAK 18 PILOTA PARTIDUAK

21:30ean V. Emakumeen Olazar pilota txapelketa (4 ½): finalerdia
Jarraian XXXVIII Olazar pilota txapelketako finalerdia.

ABENDUAK 19 IPUIN KONTALARIA

17:00etan eta 17:30ean Ipuin kontalaria: Mari Domingi, opariak, ipuinak eta komeriak liburutegi zaharrean; jarraian Mari Domingi eta Olentzerori idatzitako gutunen sarien zozketa.

ABENDUAK 22 HAUR ANTZERKIA

17:00etan Haur antzerkia: Su magikoaren lapurreta Olazar pilotalekuan.

ABENDUAK 24
BADATOK MARI DOMINGI
ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA

12:00etan HARRERA Olazar kalean.

12:30ean Ongi etorri jaialditxo San Martin plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

ABENDUAK 26
SAN ESTEBAN EGUNA

18:00etatik aurrera eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

ABENDUAK 27
MARIVI TXAPELKETA

Maribi Oroimenezko futbol Txapelketa Solobarrian.

ABENDUAK 29 ETA 30
UMEEN GABONETAKO PARKEA

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00
Eskolako kiroldegian.

ABENDUAK 31

12:00etan XI. SAN SILVESTRE
LASTERKETA Irteera udaletxeko plazatik.

16:00etan V. Emakumeen Olazar pilota txapelketa (4 ½): Finala jarraian XXXVIII Olazar pilota txapelketako finalak.

URTARRILA 1
IGOERA SANTAMARINAZARRERA

11:00etan Talde argazkia tontorrean.

URTARRILA 5 ERREGE MAGOAK

18:00etan Olazar pilotalekuan.



herriko frontoian. Ant.: udala

URTARRILAK 4 GABONETAKO SUPERIGANDE BEREZIA

10:00 Saskibaloi eta futbol partiduak herriko frontoian.

16:00 Bingo berezia eta domino txapelketa Kontzejuzarrean. 13 urtetik beherakoenzat. Antolatzailea: A.D. Mallabia F.T.

MAÑARIA

ABENDUAK 23

18:00 Ipuin kontaketa: 'Betiko ipuinak, betirakoak'. Bego Alabazanen eskutik. 5 urtetik gorakoentzat. Liburutegian.

ABENDUAK 24

18:00 Olentzerori eta Mari Domingiri ongietorria. Plazan.

ABENDUAK 30

19:30 Azken barikuko enkartelada. Plazan.

ABENDUAK 31

10:30etik aurrera San Silvestre herrikoia. Plazan.

URTARRILAK 1

09:30 Urte Barri Egunekeo Gallandara irteera (Zaldi Mendi Taldea), **09:30** lurretako plazan.

11:00 Tontorrean argazkia. Salda eta 2026ko egutegia banatuko dira.

URTARRILAK 5

17:30 Errege Magoen kabalkadari harrera, Askondon. Txokolatea eta elkartasun opila banatuko dira.

OTXANDIO

ABENDUAK 14

10:30-15:00 Tokiko produktu eta artisauen azoka.

12:30 Herri kirol erakustaldi parte hartzailea Badaioz taldearen eskutik.

13:00 Akelarre txaranga.

ABENDUAK 15

19:00 Arratia musika eskolaren emanaldia elizan.

ABENDUAK 19 GUTUNA OLENTZERORI

17:00 Jostailuen truke azoka Kontseilupean.

18:00 Olentzeroren laguntzaileak etorriko dira umeen gutunak jasotzera.

ABENDUAK 20

16:30 Esku pilota jaialdia, Iluntxo pilota eskolak antolatuta.

20:00 Udal Bandaren gabonetako kontzertua elizan.

ABENDUAK 21

18:30 Gabonetako bingo berezia, Jubilatuen Elkartean (18 urtetik gorakoak). Sari bereziak egongo dira.

ABENDUAK 24 OLENTZERORI HARRERA BEROA

19:00 Abesbatzak eta herritarrek kalejira egingo dute. Ondoren, Pasealeku Jubilatuen Elkarrekin gaztainak eta ardo beroa eskainiko ditu.

ABENDUAK 29

18:00 Txotxongilo ikuskizuna, Haurreskola ondoko aretoan.

19:30 'Nortasun Agiria', Zuhaitz Gurrutxagaren bakarrikzeta. Bolalekuan.

ABENDUAK 31

09:00 Urteko azken mendi irteera Arangixora. Autobus geltokian egin dute hitzordua.

18:00 Gabon Zaharretako Herri Krosa.

URTARRILAK 2

18:00 Karaokea Haurreskola ondoko aretoan.

URTARRILAK 11

Izotz pistara irteera, LH3tik LH6ra arteko neska-mutilei zuzenduta.

ZALDIBAR

ABENDUAK 18

21:30 V. Emakumeen Olazar pilota txapelketa (4 ½): finalerdia

Jarraian, XXXVIII Olazar pilota txapelketako finalerdia.

ABENDUAK 19

17:00 eta 17:30 Ipuin kontalaria: Mari Domingi, opariak, ipuinak eta komeriak liburutegi zaharrean; jarraian, Mari Domingiri eta Olentzerori idatzitako gutunen sarien zozketa.

ABENDUAK 22

17:00 Haur antzerkia: Su magikoaren lapurreta Olazar pilotalekuan.

ABENDUAK 24 BADATZ MARI DOMINGI ETA OLENTZERO HERRI EKIMENA

12:00 HARRERA Olazar kalean.

12:30 Ongi etorri jaialditxo San Martin plazan. Eskutitzak zuzenean emateko eta txupeteak lagatzeko aukera.

ABENDUAK 26 SAN ESTEBAN EGUNA

18:00 Eskolako pilotalekuan, taloa, txorizoa, urdaia eta gaztaina erreak.

ABENDUAK 27

Maribi Oroimenezko Futbol Txapelketa Solobarrian.

ABENDUAK 29 ETA 30

12:00 - 14:00 eta 17:00 - 20:00 Umeen Gabonetako Parkea eskolako kiroldegian.

ABENDUAK 31

12:00 XI. San Silvestre lasterketa Irteera udaletxeko plazaatik.

16:00 V. Emakumeen Olazar pilota txapelketa (4 ½): Finala jarraian XXXVIII Olazar pilota txapelketako finalak.

URTARRILA 1 IGOERA SANTAMARINAZARRERA

11:00 Talde argazkia tontorrean.

URTARRILA 5

18:00 ERREGE MAGOAK Olazar pilotalekuan.

ZORNOTZA

ABENDUAK 12-14

20:00 '¡Aupa Azules!' SDA 100 urte dokumentala, Zornotza Aretoan.



Olentzero eta Mari Domingi Zaldibarren.

ABENDUAK 13

10:30-12:00, Ludoteka familian, Zelaietako ludotekan.

11:00 Gabonetako Azoka, herriko plazan.

20:00 Aita Eliseoren omenezko kontzertua, El Carmelon.

ABENDUAK 20

11:00 Bizarzuriri ongi etorria eta kontzertua, Zelaietan.

12:00 'Mailaz maila, bidea euskaraz' Itziar Gamero ipuin kontalariagaz, liburutegian.

20:00 'Gauero Agur 2025', Zelaietako kontzertu gelan.

20:00 'Sentsazioen paisaiak' Zornotzako musika bandagaz, Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 21

12:00 Herriko koralek 'Mesias sarritan', herritik zehar.

12:30 Gabon kantak, Larrako elizan.

13:45 Kalbarion topaketa.

ABENDUAK 24

09:00 Igoera Belatxikietara, Zelaieta parkean.

17:30 Olentzero eta Mari Domingi, Gudari-Nafarroa-Ibaizabal-San Migel-Gudari kaleetatik.

Ostean, Olentzerori eta Mari Domingiri harrera, Amorebieta IV frontoian.

ABENDUAK 26

09:00-14:00 / 16:30-21:00 Indoor Cup (+14 urte), Larrea kiroldegian.

ABENDUAK 28

08:00 XI klasikoen rallya, Zubiondo plazan.

ABENDUAK 29

17:30 Anita Maravillasen 'Jon Braun', Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 30

17:30 Anita Maravillasen 'Kotondarrak', Zornotza Aretoan.

ABENDUAK 31

09:00 Belatxikietara martxa, Zelaieta parkeko iturrian.

11:00 argazki erraldoia, Belatxikietako ermita aurrean.

16:30, San Silvestre lasterketa, Zelaieta parkean.

URTARRILAK 2

17:30 Anita Maravillasen 'Andereño', Zornotza Aretoan.

20:45 Pilota pro fest, Amorebieta IV frontoian.

URTARRILAK 3

17:30 Anita Maravillasen 'Andereño', Zornotza Aretoan.

12 orduko maratonia, Amorebieta IV. frontoian.

URTARRILAK 5

17:30 Erregeen kabalkada, Gudari-Nafarroa-Ibaizabal-San Miguel-Gudari kaleetan. Ostean, Zubiaur musika eskolako hip hop ikasleek harrera egingo diete Amorebieta IV frontoian.

ABENDUAK 22-30 ETA URTARRILAK 2-5

17:00 Gazte gabonak (Gazteentzako gabonetako esparrua), gaztetxokoan eta kontzertu gelan.

ABENDUAK 23, 26, 29, 30 ETA URTARRILAK 2-5

09:30-13:30 Neguleku irekiak.

ABENDUAK 26-30

11:00-14:00 / 17:00-20:00 Gabonetan jai Umeentzako Gabonetako Parkea.

ABENDUAK 26-30 ETA URTARRILAK 2-5

11:00 Txu-txu trena, Gudari kaleko autobus geltokian.

ABENDUAK 29, 30 ETA URTARRILAK 2


10:30-12:00 / 12:00-13:30 'Ekofashion week'.

GABONETAN

★ **EROSTEAN,**

**EZ SALDU
ZURE BURUA**

**LEHENENGO PLANIFIKATU ETA HORRELA EROSKETA
KONPULTSIBOAK BAZTERTUKO DITUZU.**



Gabonak 2025

**TOKIKO MERKATARITZA
BULTZATZEA ETA KALITATEZKO
OPARIAK EROSTEA
ERRAZ UZTARTU DAITEZKEEN
ZEREGINAK DIRA.
EGIN ZERO KILOMETROKO
EROSKETAK!**

Gabonetako egun hauetan, Durangaldeko kaleek badute berezitasun bat: bertako denda eta komertzio txikiek sortzen dituzten gertutasuna eta konfiantza. Zero kilometroko produktuak, mimoz aukeratutako artikulua eta eskualdeko profesionalak ematen duten zerbitzu zuzen eta kalitatezkoa dira gure herrien benetako altxorra. Horregaitik, erosketa sasoi honetan aintzat hartzekoa da bertako dendarien lana. Garai honetan, gonbidapena argia da: tokiko merkataritzari babesa eman eta opariak eskuratzeagatik batera, hurbiltasuna saritzea. Durangaldeko herri eta auzoak bizirik mantendu gura baditugu, horixe da bidea. Bertokoa eta kalitatezkoa!

Gehigarri honetan Durangaldeko eskaintza zabal horren adibide batzuk aurkituko dituzue, lagungarri izango zaizkizuelakoan.

Instagram: @pasteleria_ayarza_1949
Luis Urrengoetxea, 11. Zornotza
Tel: 94 673 02 42
Montevideo, 10. Durango
Tel: 94 403 54 19

Ayarza
1949

etxedreams
COLCHONERIAS

- Zure produktuak kosturik gabe entregatu eta jartzen ditugu.
- Aukeratu gehien gustatzen zaizun ordainketa-metodoa
- Zure ohe zaharra kendu eta birziklatzen dugu
- Doako finantzaketa TAE % 0 komisiorik gabe
- Etxeko aholkularitza eta "hitzordua" jartzeko aukera.

ETXEDREAMS, historia duen izena

Koltxonetak - Kanapeak - Oinarriak - Oheburuak - Burkoak - Osagarriak

Tel: 652767433 / 747495302
etxedreamscolchonerias@gmail.com
@etxedreams_colchonerias

**DURANGO - ERMUA
AMOREBIETA - EIBAR**

EOK
EUSKOTZARAK
MODA & GOURMET

Ermodo kalea, 3
48200 Durango
Tel.: 946 817 205
info@euskotzarak.com

@provenzastore

Provenza
Emakumeentzako arropa eta osagarri xarmadunak

Andra Mari, 20 DURANGO
Zuloagatarren, 7 EIBAR



arteka
liburu-denda
artekale, 20
944 657 292
Durango

haur literatura
arte
musika
arkitektura
opari bereziak
era kusketak

KOLTXOIAK - OHE OINARRIAK
BURKOAK - OHEKO ARROPA

Zure premiei
erantzuteko
prest egongo gara

Alluitz, 1 - DURANGO Tel.: 944 005 960

El Badulake

Barrenkalea 22 Durango
Tel.: 606 731 157

elbadulakedurango

SILLERO ZAPATA DENDA
1887an sortutako etxea

Kanpantorrosteta 1 - Durango
Tel.: 94 681 22 09

Zatoz Sanmartinpeko gozoak
eta gofreak dastatzera

Eguberri on zoriontsua igaro
dabizula opa dituzlegu bihotzez

Gogora ezazu
aldeztu aurretik
eskaera egitea,
gutxienez 48
ordu lehenago

TURROI ESKLUSIBOAK

Ermodo, 11 Durango
946 201 663
661 40 14 00

Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia



boboli

Pablo Pedro Astarloa kalea, 15,
48200 Durango, Bizkaia · Tel.: 946 23 26 32

www.boboli.es

ANITHA MOL

Errekakale 3, ELORRIO

Montevideo 1, DURANGO

Al Zubi design

Lizasoain 11 DURANGO - TEL: 946 40 73 13

JOYERIA TABIRA

DURANGO

Barrenkalea, 15
Tel.: 946 81 42 95

Bitxiak eta erlojuak
konpondu eta
kontserbatzen ditugu.
Baita grabatuak ere.

CITIZEN SWATCH CASIO

arentza fotografia

FOTO ARENTZA
688 740 067
info@arentza.com
Uribarri kalea 13, Durango

arentza argazkiak

mi casa
cosas de casa

DURANGO

Artokalea 30 behea
656 735 170
946 004 664



Paule

Arropa eta osagarrien denda

Uribarri, 3 Durango

@paule_durango

Zuretzat ParaTi

paratidurango

Politte

politte.official

hitz

liburudenda

artekalea 23, durango - 946 810 776 - info@hitzliburudenda.com

CICLOS ITURRIAGA DURANGO

CICLOS ITURRIAGA

Txibitena 17

48200 Durango

Bizkaia

94 681 32 61

keinu

OPTOMETRIA ZENTROA

PSE: 162/13

Naia Zabala Azurmendi

11587 kol. zk.

- Jokabide optometria
- Haurren ikusmena
- Ikusmenaren entrenamendua
- Jatorrizko erreflexuak
- Fototerapia optometrikoa
- SENA entzumenaren estimulazioa
- Kirol ikusmena
- Garuneko lesioak
- Orto-k eta miopiaren kontrola

Arkaraz 3 · BERRIZ · 94 622 50 99

keinuoptometriazentroa.com

Gabonetako karta

Gabonetan jantzi mahaia Zuremenuarekin

"Budinak, karakolak, makilaue, txipiroiak, bildotsa....."

Eskariak egiteko azken eguna

Gabon gauerako, abenduak 18

Gabon zaharrerako, abenduak 26

Gutxieneko eskaria 20€

Etxera eramaten dizugu!

50€-tik aurrera garraio-saria dohainik

Tel.: 688 614 169 | info@zuremenua.com | zuremenua.com



Ekaitz Herrera ABADIÑO

Garai batean Atxa burdindegia zenak beste itxura bat hartu du egunotan. Gabonetako opariak izan daitezkeenak edota egunerokorako erabilgarriak direnak topatu daitezke atzo ateak zabaldu zituen Azoka Txikian. Durangaldeko eta inguruetako herrietako hainbat ekoizlek euren produktuak erakusteko erabiliko dute azoka; adibidez, zeramikak, argizarizko irudiak, lore sikuak, zamakez eginiko belarritakoak eta poltsak plazaratzeko. Sei lagunen artean ekin diote proiektuari, eta horietariko bigaz batu da ANBOTO: Monica Delgadogaz eta Janyre Quintasegaz. Urtarri-laren 5era arte edukiko dute zabalik Azoka Txikia.

Nondik dator ideia?

Janyre Quintas: Ideiaren hazia iaztik dator, Durangon neguko azoka bat egin genuen, probatzeko asmoagaz edo, eta gustura aritu ginen.

Monica Delgado: Guretat sekulako esperientzia izan zen, izugarria, oso polita. Jendea ezagutzeko oso baliagarria izan zen, eta baita gure burua ezagutarazteko ere. Eta saltzeko ere bai, jakina. Ikusten duzu apaletan dituzun gauzak zelan saltzen doazen, gustatu egiten direla, eta orduan gustura geratzen zara. Horren ondoren, pentsatu genuen Matienan bertan horrelako beste bat egitea, artisau gehiagaz batera.

J. Q.: Iruditu zitzaigun aukera polita zela ere lokal honi bigarren bizitza bat emateko, Matienan ez dagoelako eskaintza askorik. "Beharbada ez da ondo irtengo, baina ahalegindu egingo gara", pentsatu genuen.

Eta ahalegindu zarete. Zein da dendaren ordutegia?

M. D.: Astelehenetik eguenera goizean zabalduko dugu, eta ba-

"Gure artisau lanek arima dute, bakarrak dira"

MONICA DELGADO ETA JANYRE QUINTAS ARTISAUAK

Durangaldeko eta inguruetako sei ekoizlek indarrak batu dituzte neguko azoka moduko bat zabaltzeko Abadiñon; Azoka Txikiak atzo zabaldu zituen ateak



Monica Delgado eta Janyre Quintas.

rikuetan goizean eta arratsaldean; zapatuetan goizean zabalduko dugu. Inguruetako denda eta lokalak jarduna ez oztopatzea da gure asmoa.

J. Q.: Sekulako ilusioagaz gaude, lana ere izaten dabilen arren; lokala moldatu behar izan dugu, margotu. Gure artean ere txandak adostu behar izan ditugu. Gehiago edo gutxiago, denok egongo gara hemen.

M. D.: Esan dugun moduan, arrerekoan ikusi genuen jendeak eskertu egiten duela zuzeneko hartu-eman hori. Norberak hobe

"BEZEROEKIN HARTU-EMANA OSO GARRANTZITSUA DA GURETZAT; GIRO GOZOA DUGU AZOKAN"

betu azalduko dio bezeroari sortzen eta saltzen duen hori albokoak baino. Egia esan, denok dugu geure proiektuen berri, baina ekoizleagaz aurrez aurre berba egitea da onena.

Zer ikusiko du hona datorrenak?

M. D.: Ba, gauza mordoa ikusiko du. Eskuz egindako gauzak, eta, batez ere, maitasunez egindako gauzak, egiterakoan bihotzetik ateratzen duzulako. Ez

dira pieza arruntak, beste edozein tokitan topatu ditzakezunak. Pieza bakoitzak bere arima propioa du, denbora asko eskaini zaio. Bakarrak dira. Ez dituzu edozein lekutan topatuko, eta hori nabarmentzea garrantzitsua da.

J. Q.: Bertako giroa ere azpimarratuko nuke. Kafeontzi bat daukagu, baten batek gura izanez gero ere. Hartu-eman hori oso garrantzitsua da, eta gune egokia da horretarako. Giro gozoa izango dugu, gainera.

Durangaldekoak ez ezik, inguru-koetakoak ere bazaudete.

M. D.: Bai, Iurretako Bloosi estudioa, adibidez; zeramikazko taza edo loreontziak egiten ditu, besteak beste; Durangotik, lora sikuarekin koadroak egiten dituen Nilora Lorak; Loft Di Laurak eguzkiloreak egiten ditu zamak eta beste material batzuen nahasketagaz eta harriekin. Maluke munduak inpresioa egiten du, kamisetetan adibidez. Las Cositas de Coco Janyre-k, koadroak. Ongizate ehungitzara dedikatzen da; zaku termikoak eta zapiak egiten ditu, adibidez.

J. Q.: Nirea Las Cositas de Coco da, holistikoa da, zen mota. Nire bizitzako esperientziak argizarietan eta koadroetan islatzen ditut; desberdinak dira. Eskuz egiten ditut. Diseinuak ere nik neuk egiten ditut. Konexioa eta txakrak jorratzen ditut, batez ere. Material naturalak erabiltzen ditut, zurezkoak, figurak igeltsuan, eta margotu egiten ditut; barrukoa olio esentzial naturala eta soja argizariagaz egindakoa da, dena naturala. Nik neuk ere ez nuen ezagutzen, horregaz lan egiten hasi nintzen arte. Alternatiba natural bat dira, ez dira toxikoak. Ez nuen parafinagaz lan egin gura.

Elkarrekin, haurren minbiziaren aurka!

Zure erosketak La Paz Haur Ospitaleko Terapia Aurreratuen CRIS Unitatearen ikerketan laguntzen du.



INVESTIGACIÓN PARA OTRA OPORTUNIDAD



Garantizakoari
begiratzen



SUPERHERO
28 cm. Unit.

6,99 €

2 €



Alcampo
DURANGO

Montorreta Industrialdea, 1 ST3 errepidea.



"Tratamendu estetikoak esperientzia bilakatzen ditugu"

VIRGINIA ANSORENA ESTETIKA ZENTROA

Profesional onen eskuekin, punta-puntako teknologiaz eta aholkularitza pertsonalizatuagaz bezeroei zerbitzurik onena ematen dabilta Durangoko Virginia Ansorena zentroan

Maialen Zuazubiskar DURANGO

Atzera eta aurrera, arineketan eta geratu barik bizi garen garai honetan, Durangoko erdigunean dagoen Virginia Ansorena zentrorra sartzeak gustua ematen du; denbora gelditu egiten dela dirudi. Lekuak berak lasaitasuna transmititzen du, eta zer esanik ez zentroa bera osatzen duten profesionalek. Bertan, bezeroa eta haren ongizatea erdigunean ipintzen dute, arreta pertsonalizatua eta punterengo teknologia bereizgarri direlarik. Virginia Ansorenaren lantaldea erreferentziazkoa bilakatu da. **Zer eskaintzen duzue Virginia Ansorena zentroan?**

Estetika aurreratuko zentro garen aldetik, tratamenduak

lantzen ditugu. Baina horri buelta bat eman diogu Virginia Ansorena zentroan, eta tratamendu horiek esperientzia bilakatu ditugu. Tratamendu estetikoak une berezi bilakatu ditugu bezeroarentzat. Hau da, erlaxazio-sentsazioa oparitzeaz gainera, larruazala eraldatu edo hobetzen duen zerbait eskaintzen dugu. Punterengo teknologia eta produktuak erabilia, bezeroa erdigunean ipinita hainbat tratamendu esperientzia bilakatu dira. Adibidez, hidratazio-tratamendu zoragarri bati masaje berezi bat gehitu diogu koilara izoztu batzuekin; hotz-bero sentsazio hori oso atsegina da bezeroarentzat. Gaztetzeko beste tratamendu bati, *Indibari*, aur-

pegiko egitura guztiak lantzen dituen *Gua Sha* moduko bat gehitu diogu. Honek sorrarazten duen sentsazioa oso atsegina da. Hau guztia prezio beragaitik, prezioa mantenduta.

Tratamendu hauek guztiak eta egunerokotasunean trebatzeko eta berritzeko dugin grina gure lanarekiko dugin pasioaren emaitza dira.

Gaur egun, askok opariak egitera-koan osasunaren eta ongizatearen aldeko apustua egiten dute

Orain bost-sei urtetik hona, aldaketa izugarria nabaritu dugu. Jendea ongizatearen alde egiten dabil, eta askok eta askok ondo egindako lan baten aldeko apustua egin dute, kalitatezko zerbitzuen aldekoa. Ondo egindako



lan batean punterengo teknologia egotea, gama handiko produktuak erabiltzea eta bezeroari sartzen denetik irteten den arte laguntza ematea ezinbestekoa da. Eta, jakina, hori guztia lantalde profesional baten gidaritzapean. Nik horretan zortea dut, lantalde zoragarria dut inguruan.

Gainera, ordutegia zabaldu dugu zerbitzurik onena eskaintzeko eta bezeroei merezi duten tratua emateko. Orain goizez ordu bi gehiago ditugu, eguerdian beste bat, eta arratsaldean beste bat. Zapatuetan ere zabalitzen dugu. Eskariei behar den moduan erantzun gura diegu.

Eta opariei dagokienez, zer eskaintzen duzue?

Zentroan munduko punterengo teknologia guztia daukagu: *Indiba*, *IPL*, *Velaction* eta *Rollaction*, besteak beste. Ez ditugu oinarritzko tratamenduak lantzen, premium lerroak bakarrik lantzen ditugu. Beraz, hidratazioaren eta gaztetzearen bila bazabiltza, *Indiba* daukagu; argitasun gehiagoren bila ba-

zabiltza, *IPL* zoragarri batez lan egiten dugu; oso produktu hidratatzaileak bilatzen badi-tuzu, oinarri zientifiko izugarria duten produktuak ditugu. Gurean ez dago edozein produktu. Lehenengo, produktu horrek maitemindu egin behar gaitu, eta, horren ondoren, zentrorra ekartzen dugu.

Azpimarratu gura nuke ez dugula gura gurea Gabonetako opari bat gehiago izatea, opari soil bat. Gura duguna da zu hona etorri eta gogoan izatea nork oparitu dizun esperientzia hau, eta hemendik irtetea esanez: "Joe, zelako oparia egin didan!". Zelanbait esanda, opari ahazte-zin bat izatea.



Erdian, Virginia Ansorena bere lantaldeagaz inguratuta.

Emaitza eraginkorrak lortzen ditugu gaztetzearn eta zahartzearen prebentzioan



VA
VIRGINIA ANSORENA
Estetika aurreratuko
zentroa,
inbaditzaileak
ez diren teknikekin
(orratzik eta injektagarririk gabe)



Josemiel Barandiaran Kalea, 10
Durango
Tel. 944 35 57 45
@estetica_virginia_ansorena

afede



Gure Jostailu-Denda



Argiarekin

Metalezkoa

+3

Euskotren tren
elektrikoa
39,99€



+3

Olentzero
Gabon kanta
29,99€



+4

Bilatu liburu
erraldoian
19,95€



+10

Catan
jokoa euskaraz
39,99€




+4

Zein
da zein?
12,95€



+7

Hitz-
gurutzatuak
19,95€



+8

Monopoly
Euskadi edizioa
39,99€

Parte hartu
jostailu
hauen
zozketan
anboto.org
webgunean!

www.afede.com





OPARI bonuak 2025

Sartu gure webgunean,
aukeratu opari bonua,
inprimatu eta listo!



Areatza Bainuetxea



**Zirkuitu Termalak
Masajeak
Bikote-Kapritxoak
Erritual naturalak
Egonaldiak Hotelean
Hidroterapia
Estetika & Kosmetika**

Askatasuna, 50 bis
Areatza

946 57 27 05 / 946 57 53 81
reservas@hotelbalnearioareatza.com
www.hotelbalnearioareatza.com

Aritz Maldonado BERRIZ

Iaz Augustin Zubikarai saria irabazi eta gero, Julen Apella idazle berriztarak *Sakelako bihotzak* nobela kaleratu du aurten. Nerabezaroaren eta helduaroaren arteko linboan dauden Jokin eta Felix dira nobelako protagonistak. Z belaunaldikoen argazkia ez ezik, beldurra, maitasuna, komunikazio eza eta halako gai unibertsalak jorratzen dituen lana ere bada Apellarena. Berriztarak poesiatik eleberrirako jauzia egin du, estilo propioari eutsita. Berrizko Hiltegixe gaztetxean eta Durangoko Hitz liburu dendan aurkezpenak egin eta gero, Durangoko Azokako Ahotsenean ere aurkeztu zuen liburua, abenduaren 8an. Oraindino "goizegi" den arren lanak izandako harrera neurtzeko, Apella pozik dago jasotzen dabilen mezuekin.

Hiltegixe gaztetxea bete egin zenuen liburuaren aurkezpenean. Pozik?

Oso pozgarria izan zen, jende asko joan zen gaztetxera eta oso babestua sentitu nintzen. Jende askok agertu du interesa liburuagazko, eta Hiltegixeren moduko leku batean aurkeztu ahal izatea berezia da niretzat; gune autogestionatu batean egin ahal izatea, eta, gainera, nobelan ere gaztaroko gaiak lantzen diren neurrian, egokia zen eta niri ilusioa egin zidan bertan aurkezteak.

Gazteen artean irakurzaletasunak gora egin duela esango zenuke?

Ez daukat estatistikarik, baina badaukat sentsazio bat horrela dena. Belaunaldi batzuetakoek esan izan dute belaunaldi gazteagoek ez dutela irakurtzen, eta nik nire ingurura begiratzen dudanean gauza interesgarriak ikusten ditut. Ikusten ditut B bandako gazteak literatur bandak sortzen, hor daude gazte-txeetan antolatzen dabiltzan irakurle taldeak, Gasteizko Azpimarra eta Durangoko gaztetxe berrian sortutakoa, adibidez. Oso albiste pozgarriak dira niretzat, literaturaren inguruan oso interesgarria den sare komunitario bat sortzen duelako. Beharbada, lan asko argitaratzen da gaur egun, baina kostatu egiten da lan horiek sozializatzea, eta, horretarako, oso komenigarria izaten da espazioak edukitzea. Horrek hainbat aukera ematen du, obren bizia luzatzen du, kolektiboki

"Eleberri hau ez da Z belaunaldiarentzat bakarrik"

JULEN APELLA IDAZLEA

LITERATURA Julen Apella idazleak 'Sakelako bihotzak' nobela kaleratu berri du; Berriztarak kaleratzen duen bigarren lan honetan nerabe bi dira protagonistak



Julen Apella berriztarra.

hausnartzeko espazio bat eskaintzen du...

Gazte bi dira eleberriko protagonistak.

Bai, 21 urteko Jokin eta Felix. Adin hori aukeratu nuen nerabezaroaren eta helduaroaren arteko katebegi bat iruditzen zitzaidalako; 2023an dago giotuta, pandemiaren eta berrogeialdiaren testuinguru horretan. Esango nuke hor badagoela belaunaldi bat berrogeialdian nerabe zela sartu zena eta nerabezaro hori atzean uzteko beharragaz irten zena, baina oraindino heldu funtzional izateko gaitasunik barik, halako linbo moduko batean. Horixe da nobelaren abiapuntua. Baina ez da liburu bat Z belaunaldiarentzat bakarrik. Literaturak gai unibertsalez berba egiten du, eta bertan maitasuna, desira, beldurra, inkomunikazioa... agertzen dira. Alde horretatik, dena nahiko naturala izan da. Gai unibertsal horiek norberaren testuingurura zelan egokitu da gakoa. Errealitate bat islatzen duzun neurrian, lotura gehiago edo gutxiago agertuta, errealitate sozial edo politikoari ezin zaio izkin egin. Nik eleberri garai-

kide bat egin gura nuen, eta, beraz, elementu horiek natural agertu dira. Eider Rodriguezek aurreko batean aipatu zuen literaturan oportunismo puntu bat egoten dela, gaur egun, adibidez, osasun mentalari buruz berba egitea izan daitekeena; ni ere hortik ihes egiten ahalegindu naiz. Nire inguruan dagoena kontatzen ahalegindu naiz, bere argiekin eta bere itzalekin, ertzak arakatuta eta gure errealitateko konplexutasunak kontuan hartuta.

Beharbada, moduren batean Z belaunaldia agertzen da erretratututa, baina ez dakit, ageri diren problematiketariko asko unibertsalak dira, inor ez da salbu egon; denok sentitu dugu zoriona, denok sentitu dugu beldurra, denok izan ditugu gorabeherak hartu-eman afektiboetan, denok sentitu gara galduta gure bizitzetako zenbait etapatan, eta hori adin askotan sentitu daitezkeen gauzetara estrapolatu daiteke. Beraz, aldarrikatu gura dut nobela hau ez dagoela bakarrik Z belaunaldikoei zuzenduta.

Poesiatik eleberrira jauzi egin duzu.

Prozesua desberdina izan da, baina badaude antzekotasun batzuk; tonuan eta gaitegian, esate baterako. Poesian agertu zitzaizkidan kezka batzuk oraingoan ere agertu zaizkit. Oraingoan ere beka baten bitartez idatzi dut liburua.

'Postal bat desertuan' kaleratu zenuenean ere, iruzurtiaren sindromeaz aritu zinen. Bigarren saria duzu hau, bigarren kanpo aitortza. Hasi zara sinesten idazlea zarela?

Ora in bai, orain berme hori sentitut dut, epaimahai batek berriro nire proposamena babestuta. Sorkuntza prozesua beti da gorabeheratsua eta beti dituzu kezka. Ez bakarrik iruzurtiaren sindromeagaitik. Egiten duzun horrek balio duen ala ez galdetzen diozu zeure buruari. Bestalde, inpertinentziaren sindrome moduko bat ere aipatuko nuke; mundua zelan dagoen ikusten duzu, gertatzen babilzan gauzak ikusten dituzu, genozidio bat zuzen-zuzenean, adibidez, edo lan-prekaritate izugarriagaz inguratuta gaudela, etxebizitzaren prezioa jasanezina dela, eta hor zaude zu nobela bat idazten. Horrek ere kezka sortzen dit, pentsatzen dudalako ea zein ekarpen egin dezakedan eleberriaz.

"UNIBERTSALAK DIREN GAIK NORBERAREN TESTUINGURURA EGOKITZEA DA GAKOA"

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENAGO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 12

ABADIÑO Erakusketa
'Naturari so' (Durangaldeko Artisten Elkarteko erakusketa kolektiboa).
Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra bitartean.

ABADIÑO Kontzertua
Garry.
Larrano tabernan, 20:00etan.

BERRIZ Dantza
'Amama' (Aukeran dantza taldea)
Kultur Etxean, 17:00etan.

DURANGO Kontzertua
Gabon kontzertua: 'Un paseo por Italia', Mr Swing soka taldearen eskutik.
Otamotzena auzogunean, 19:00etan.

DURANGO Lehiaketa
Durangaldeko Gazteen VIII. Lehiaketa Artistikoa. Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatuta.
Ezkurdi aretoan, abenduaren 15era bitartean.

IURRETA Kontzertua
Iker Piris.
Korta tabernan, 20:00etan.

MALLABIA Erakusketa
'Bakardade ikusiezina'.
Liburutegian, abenduaren 19ra bitartean.

MAÑARIA Erakusketa
'Tresnak eta natura' erakusketa finkoa.
Hontza Museoa.

ZALDIBAR Lehiaketa
Bitor Garitaonaindiaren Omenezkeko I. Ipuin Lehiaketa. 8-12 urte bitarteko umeei zuzenduta. Informazioa: www.zaldibar.eus
Lanak udalera helarazi behar dira, urtarilaren 18ra bitartean.

ZORNOTZA Erakusketa
'Jai demokratiko batzuen aldeko borroka. 1975-1976ko Karmenak' (Mikel Etxebarria Etxeita).
Zelaieta Zentroan, abenduaren 22ra bitartean.

ZAPATUA 13

BERRIZ Antzerkia
'Charlas del azucarillo' (Las Couchers konpainia).
Kultur Etxean, 19:00etan.

DURANGO Musika
'Pause' (Xabier Zeberio eta Bartolome Ertzilla Musika Eskola). XXXVI. Musika Hamabostaldiko egitarauaren barruan.
Plateruena kultur aterpean, 19:00etan.

IURRETA Kontzertua
Malatesta.
Korta tabernan, 20:00etan.

IURRETA Bizikleta irteera
Miñotara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 10:00etan.

ZORNOTZA Kontzertua
Aita Eliseoren omenezko kontzertua: Soinu Txikie, Xuxurlariak, Coral Zornoza eta Abeskimu abesbatza.
Karmelo ikastetxean, 20:00etan.

DOMEKA 14

ABADIÑO Azoka
Tokiko ekoizle eta artisauen azoka. Artileagaz apaingarriak egiteko tailerra egongo da, Maduixa Gorriaren eskutik, 11:00etan.
Txanportan, 10:30etik 14:00etara (euria eginez gero, Probalekuan).

DURANGO Antzerkia
'Elara, bidai bat izarretara' (Mar Mar Teatro).
San Agustin kulturgunean, 18:00etan.

IURRETA Eskalada
Umeentzako eskalada eguna. Zaldai mendi taldeak eta Maiztegi Guraso Elkarteak antolatuta. 4 urtetik gorakoak. (Informazioa: 626 740 969 / zaldai@hotmail.com).
Ourdaybiko rokodromoan, 09:30etik 12:00etara (Landako I kiroldegi ondoko parkingean egin dute elkartzeko hitzordua).

IURRETA Bizikleta irteera
Santimamiñera irteera. Iurreta Txirrindulari Elkarteak.
Iurretan, 10:00etan.

EGUENA 18

ABADIÑO Kontzertua
Moonshakers.
Amaraun Arte Fabrikan, 19:30ean.

ZALDIBAR Tailerra
Sukaldaritza tailerra, Berbalagunek antolatuta.
Goierri elkartearen, 19:30ean.

BARIKUA 19

ABADIÑO Antzerkia
'De pura cepa' (Bocabeats Comedia).
Larrano tabernan, 20:00etan.



ELORRIO Dantza
Ángel Durán Performing Arts konpainiak *Cowards* dantza ikuskizuna aurkeztuko du, gaur, Elorrion. *Cowards* lanak maskulinitate garaikidearen rolak zalantzan ipintzen ditu, publikoa zirikatuz eta probokatuz.
Abenduaren 12an, barikua, Arriola antzokian, 20:00etan.

ZINEMA

ABADIÑO
TXANPORTA KULTUR ETXEA
Sorda Domeka 14: 18:00.
BERRIZ
KULTUR ETXEA
Gaua Domeka 14: 19:00.
DIURANGO
ZUGAZA ZINEMA
Frontera Barikua 12: 18:00, 20:30. Zapatua 13: 19:30, 21:30. Domeka 14: 19:30. Astelehena 15: 18:00, 20:15. Martitzena 16: 18:00, 20:15. Eguaztena 17: 19:00.
Golpes Barikua 12: 18:00, 20:30. Zapatua 13: 19:30, 21:30. Domeka 14: 19:30. Astelehena 15: 18:00, 20:15. Martitzena 16: 20:15.
Playa de lobos Barikua 12: 20:30. Zapatua 13: 19:30. Domeka 14: 18:30. Astelehena 15: 20:15. Martitzena 16: 18:00, 20:15.
Aro berria Barikua 12: 18:00. Zapatua 13: 21:30. Domeka 14: 20:30. Astelehena 15: 18:00. Martitzena 16: 18:00.
Zootropolis 2 Zapatua 13: 17:00. Domeka 14: 17:00.
Los Goonies Zapatua 13: 17:00. Domeka 14: 17:00.
200% Wolf. Pequeño gran lobo Zapatua 13: 17:00. Domeka 14: 16:30.
El Cascanueces (Royal Ballet and Opera) Eguaztena 17: 19:00.
Sirat Eguaztena 17: 19:00.
ELORRIO
ARRIOLA ANTZOKIA
Los Tigres Zapatua 13: 20:00. Domeka 14: 20:00. Astelehena 15: 20:00.
Super Elfinak Domeka 14: 17:00.
ZORNOTZA
ZORNOTZA ARETOA
¡Azules! Herri baten oihua Barikua 12: 20:00. Zapatua 13: 20:00. Domeka 14: 20:00.
Olivia y el terremoto invisible Zapatua 13: 17:00. Domeka 14: 17:00.
La voz de Hind Astelehena 15: 20:15.
La buena letra Martitzena 16: 19:00.



Faben Ituarte.



Ituarte sakea ateratzen, Zumarragako Goñiren Oroimenezko txapelketan.

"San Ferminetako gehien disfrutatu dudan partidua izan zen"

FABEN ITUARTE GONZALEZ PILOTARIA

PILOTA Pilotari ibilbidea unibertsitateko ikasketekin uztartzen dabil. Zaldibarko Olazar txapelketako lau eta erdiko finalaren atarian geratu da, lesio baten ondorioz

Joseba Derteano ATXONDO

Faben Ituarte (Atxondo, 2004) Euskal Filologia ikasten dabil Gasteizen. Ikasketak pilotagaz uztartzen ditu. Aste bitartean Gasteizko Lakua klubaz entrenatzen da. Emaitzei dagokienez, Olazar txapelketan ezin izan du bere maila eman, lesio bat tarteko. Txanponaren beste aldean, Gipuzkoako Senior Mailako txapela jantzi du, besteak beste. Olazar txapelketan ia atzamar-puntekin ikutu zenuen finala. Lesio txiki bat izan zenuen. Horrek izan zuen eraginik?

Muruak asko jokatzen du eta ondo egonda ere asko kostatuko zitzaidan irabaztea. Pena handia izan zen, baina martitzenean, entrenatzen nenbilela, keinu txar bat egin eta sorbalda bihurritu nuen. Ez nuen tarte handirik izan partidurako errekupeperatzeko.

"POZIK EGON NAIZ LAZKAOKO TALDEAN; KLUB KONPETITIBOA ETA LEHIAKORRA DA"

Egia esan, eskumagaz ondo ibili nintzen, baina ezkeragaz ez. Airez asko ibiltzen naiz, baina, lesioaren ondorioz, gantxoaz jotzean min sentitzen nuen. Indarrik barik jotzen nuen.

Lesioaren aurretik finalera heltzeko aukera ikusten zenuen? Aurreko partidua biak erraz irabazi zenituen.

Bai. Rekalde zortzian utzi nuen, eta Unax Ramirez hamabostean. Jokoz ondo ibili zinen. Zelan sentitu zinen?

Aurten lan handia egin dut lau eta erdian; beti kostatu izan

zaidan modalitatea da. Asko entrenatu naiz eta esango nuke igarri egin dela hori. Azken urtea zen adinagaitik Olazarren lau eta erdian jokatzeke, eta badut pena hori, azken partidua horretara topera joan ez izanarena. Binakakoan jokatu ahal izango nuke. Ea badudan aukerarik.

Zelan doa lesioa?

Gaiztoz dut. Asteon beste partidua bat izan dut eta minik barik jokatu dut. Beraz, alde horretatik, pozik nago, ez delako lesio larri bat.

Zein dohain eskatzen du lau eta erdikoak?

Nire kolperik onena behetik gorakoa da, baina, jakina, hori ez da kolperik onena lau eta erdirako. Aldamenetik eskatzen du gehiago, aire motzean ibiltzea, eta aurrean abila izatea.

Zein helburu izan duzu denboraldi honetan?

Zaldibarren finalera heltzeko esperantza neukan, eta horregaitik eman nuen izena gero Uhartan, biak lau eta erdikoak izanda bietarako prestatzeko. Eta nahiko ondo ibili naiz bietan.

"ZALDIBARREN FINALERA HELTZEKO ESPERANTZA NEUKAN, ETA UHARTEN ERE EMAN NUEN IZENA"

Orain zein klubetan entrenatzen zara?

Txukun Lakua klubean entrenatzen naiz, Gasteizen, ikasketak bertan egiten nabilelako. Baina, berez, Lemoako klubekoa naiz. **Urteari errepasoa eginda, Gipuzkoako Senior Mailako txapela irabazi zenuen. Eneko Gorostidiri erraz irabazi zenion, 22-4.**

Igarri nuen egun horretan ondo nengoena, txispagaz, eta partidua borobila jokatu nuen. Ez nuen akatsik egin, berak ere ez zuen txarto jokatu, baina dena ondo irteten zaizunean besteak aukera gutxi dauka irabazteko.

Zelan, ba, bizkaitar bat Gipuzkoako txapelketan?

Kadeteetatik Lazkaoko taldean ibili naiz eta aurten etorri naiz bueltan Bizkaira. Urte batzuk eman ditut Gipuzkoan jokatzen. **Lazkaoko ibilbideari buruz, pozik zaude han bizi izandakoagaz?**

Bai. Oso klub lehiakorra da. Baina, Gasteizen bizitzera, gaxa zen. Eta justu Ander Arroita Lemoako klubean beragaz jokatzeke eskatu zidan. Biak bizkaitarrak izanda eta biok Gasteizen egotera, erabaki erraza izan zen. **Uztalean beste txapel bat jantzi zenuen, Lesakako San Fermin Torneoan, Iker Zabalar 22-12 irabazita.**

Oso gustura jokatu nuen partidua hori. Gainera, frontoia betirik egon zen. Jaiak ziren eta kuadrillakoak ere han zeuden. Gehien disfrutatu dudan partidua izan zen.



Zapatuan Lagun Onak taldea hartuko du Tabiran. LUIS ITURRIOZ

Kulturalak gora egin du azken 12 puntuetatik 10 eskuratuta

FUTBOLA Durangoko futbol kluba indartsu dabil azken asteetan. Horri eskerrak, beheko postuetatik aldendu da

J.D. DURANGO

Durangoko Kulturala biziberrituta dabil. Azken 12 puntuetatik 12 eskuratu ditu: hiru garaipen eta berdinketa bat. Bolada on horri eskerrak, beheko postuetatik aldendu da eta sailkapenaren erdian kokatu da. Asteburuan Lagun Onak taldea menderatzen badu, goiko postuetara begira jarri daiteke. Partidu hori etxean jokatu du, Tabira zelaian, zapatuan, 17:00etan. Azpeitiko taldea laugarren postuan dago orain, eta porrot bi daramatza azkenengo hiru partiduetan.

Garaipena hamarregaz

Joan zen asteburuan Deustun lorturiko garaipena (1-2) Durangoko Kulturalak bizi duen sasoi onaren isla da. Taldea jokalaria bat gutxiagogaz jokatzen zebilela sartu zituzten Unai Arietak eta Haitz Lopezek partiduko gol biak, 76. eta 86. minutuetan, hurrenez hurren. Unerik gatxenetan, taldeak nortasun handiz jokatu zuen. Getxok errenta murriztea lortu zuen luzapenean, baina ordurako partidua amaitzear zegoen eta durangarrek eutsi egin zioten emaitzari.

Gimnastika eta elkartasuna hilaren 20ko erakustaldian

GIMNASTIKA ERRITMIKOA

Txikigym-en dirua batuko dute Angelman Sindromea elkartearentzat

J.D. DURANGO

Uztai taldeak antolatzen duen Txikigym erakustaldia urteroko hitzordu bihurtu da. Aurten abenduaren 20ko zapatuan egingo dute, 11:00etan, Landako kiroldegian. Sarrera doakoa da. 2018tik 2020ra artean jaiotako umeen Bizkaiko zortzi klub batuko dira aurten. Eurretari bat Durangoko Uztai taldea izango da. Kirola elkartasunagaz uztartuko dute. Cafes Baquek emandako kafea eta etxean egin-dako bizkotxoak salduta, dirua batuko dute Angelman Sindromea elkartearentzat.



Landako kiroldegia.



Xabi Arroitauregi baloia eskuetan, azken partiduan. LUIS ITURRIOZ

Tabirakok lidertza defendatuko du Bilboko La Salleren kantxan

SASKIBALOIA Bolada onari eskerrak, Tabirako-Baque lehenengo tokian kokatu da Euskadiko maila nagusian

J.D. DURANGO

Tabirako Baqueko gizonen taldea lider dago Euskadiko Lehen Mailan, ligako lehenengo herena joan denean. Orain arte jokatutako bederatzi partiduetatik zazpi irabazita, Julen Gomezek entrenatutako taldea konfiantzaz beterik dago. Azken garaipena Santurtziren kontra eskuratu zuen, orain aste bi (77-69). Beste askotan legez, Xabi Arroitauregi izan zen taldeko saskiratzaile nagusia, 17 puntugaz. Lander Barruetabeñak 16 puntu sartu zituen. Domeka honetan, Tabirakok La Salleri egingo dio

bisita. Lidertzari eustea izango du helburu. Ez da erraza izango, Bilboko taldea hirugarren dago-eta sailkapenean.

Emakumeak, etxean

Emakumeen talde nagusiak, ostera, garaipenaren bidera bueltatu gura du zapatuan, 19:00etan, Landako Kiroldegian jokatu duen partiduan. Kasu honetan ere La Salle izango du aurkari. Azken partidua galduta, orain zazpigarren tokian dago, bost garaipen eta lau porrotegaz. Garaipen batek goiko postuetara hurreratu dezake.



JOKALDIA

UNAI ZAMALLOA ZUBIAURRE SASKIBALOIA

Gabonetan saskibaloia

Egunotan, denok egongo gara lantalde ezberdinen topaketa, bazkari, afari edo poteoetan. Izan ere, denboraldiko lehenengo oporraldi egunak dira. Baina horrekin batera, urtea amaitzear dagoen honetan badira orain arte landu eta jasotakoaren hausnarke-ta eta denboraldiaren bigarren zatirako planteamendu eta prestaketak landuko dituztenak, gogor hasi eta topera bukatzeko. Aurrez egindako lana funtsezkoa da gero emaitzak lortzeko, eta gure taldeek ondo da-kite hori.

Gurean, bi alde nagusi dira kontuan hartzekoak. Batetik, gure taldeen kirol emaitzak eta egoerak, eta, bestetik, hurrengoetara begira eta aurtengoa errepika ez dadin, entrenatzaile berrien inguruan landu behar-rekoak.

Kirol emaitzak eta egoerak ez dira txarrak. Mutile-tan, Tabirako Baqueren talde nagusia topera dabil Lehenengo Mailan. Emaizta eta joko ona, talde gaztea

"URTE AMAIERAN BADIRA DATORREN URTERAKO PLANTEAMENDU ETA PRESTAKETAK LANDUKO DITUZTENAK"

"EZINBESTEKOA DA ENTRENATZAILE BERRIEN FORMAKUNTZA GURE KIROLAK JARRAIPENA BERMATUTA IZATEKO"

indartuz eta oinarria sendotuz. Albiste onak dira horiek. Emakumeen talde nagusia, ostera, hiru porrotekin hasi eta gero lau partida jarraian irabazita, momentuz sailkapenean zazpigarren postuan dago, beste bi talderekin batera. Ezin dute lo hartu aurretik geratzen dena lasai eraman gura badute.

Bestalde, esan bezala, ezinbestekoa da entrenatzaile berrien formakuntza eta partaidetza zabaltzea, gure kirolak epe ertainean jarraipena eta hobekuntza bermatuta izateko. Taldeen, eta ondorioz jokalarien zenbakiei begiratuz, gure kirola sasoi onean dago, baina jarraipena bermatzeko ezinbestekoak dira entrenatzaile berriak.

Opor egun hauetan ere gozatuko dugu saskibaloiaz. Gabonetako topaketak, Bilbao Basketen zein Baskoniaren partidua ikusten... saskibaloian beti topera, ezin baitugu beste modu batera bizi. Egunotan ondo pasatu denok!

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

ABENDUAK 12, BARIKUA
09:00-09:00
Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango
Sarasketa, Luis Urrengoetxea 5 - Zornotza
ABENDUAK 13, ZAPATUA
09:00-09:00
Irigoién, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
ABENDUAK 14, DOMEKA
09:00-09:00
Sarria, Sasikoa 17 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
ABENDUAK 15, ASTELEHENA
09:00-09:00
Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
ABENDUAK 16, MARTITZENA
09:00-09:00
Campillo, Montevideo etorb. 24 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
ABENDUAK 17, EGUAZTENA
09:00-09:00
Sagastizabal Askatasun etorb. 19 - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza
ABENDUAK 18, EGUENA
09:00-09:00
Etxebarría, Montevideo etorb. 2. - Durango
Iruarizaga, San Miguel 15 - Zornotza

24 orduz zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: www.anboto.org/botikak

ZORION AGURRAK



Gari
Abenduaren 14an, gure Garik 7 urte egingo ditu. Zorionak, pelotari.



Jaione
Abenduaren 15ean Jaionen urtebetetze da. Zorionak, izeko!



Angie
Abenduaren 16an Angiek 13 urte egiten ditu. Zorionak! Oso ondo pasatzea espero dugu!

GOZATU GOZATEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com

661 40 14 00
 Gozatu Gozategia
 gozatugozategia

Urte askotarako!

Zorionak Alain (1045.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

Internet
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta Anboto.org/zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

Posta elektronikoa
Mezua bidali zorionagurrak@anboto.org helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

Ordezkaritzak
Etorri zaituz Anbotoren ordezkariatzara edo deitu 946 232 523 telefonora.

DIBA

KOOPERATIBA

Durangaldeko Baserritarren Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

BERRIZKO KULTUR EKITALDIAK

Abendua

13
LARUNBATA

CHARLAS DE AZUCARILLO
19:00 Berrizko Kultur Etxea

14
OSTIRALA

'GAUA'
19:00 Berrizko Kultur Etxean

19
OSTIRALA

'NININI' ANTON TELLERIA
19:00 Berrizko Kultur Etxean

INMOBILIARIAK



F.J. Zumarraga, 11 - 946 814 049 - DURANGO
www.inmoetxetxo.com

ERAIKUNTZA BERRIA

AZOKA BERRI 3 logelako etxebizitzak. Garajea eta trastelekuarekin. **376.000 €**-tik aurrera.

ARANDONOTORRE Duplexa. Atikoa. 3 logela eta 2 komun. Terrazak. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B.**

AUKERA

Matiena: 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=E 140.000 €**

San Inazio: Garajea. **11.000 €.**

Alluitz: Lokala. 70 m2. Egokitua. Erakuslehia 2 kaletara. **110.000 €**

Abadiño: Gaztelua. Lursaila. 866 m2. Salgai. **29.000 €**

ETXEBIZITZAK SALGAI

Durango: 77 m2. 2 logela (lehen 3), komuna, sukaldea eta egongela-jangela. terraza. BIZITZEN SARTZEKO MODUAN. **C.E.E=G 210.000 €**

Iurreta: 79 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Terraza. **C.E.E=E 155.000 €**

Atxondo: 2 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Ganbara. Bizitzen sartzeko moduan. **C.E.E=F 155.000 €**

Otxandio: ETXEA. 262 m2. 3 solairu. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. **C.E.E=B 165.000 €**

Mañaria: 110 m2. 3 logela, 2 komun, sukaldea eta egongela. Ikuspegiak. **C.E.E=E 250.000 €**

Juan de Olazaran: 3 logela, 2 komun, sukaldea, eskegitokia eta egongela. Terraza. Garajea eta trastelekua. Jantzia. **C.E.E=B 372.000 €**

Durango: Erdi-banatu. 340 m2. 6 logela eta 4 komun. Txokoa. 3 kotxerentzako garajea. **C.E.E=E 637.000 €**

Artekalea: 94 m2. 5 logela, komuna eta egongela. Trastelekua. **C.E.E=F 195.000 €.**

Baserría, Zornotza: Berriztatua. 436 m2. 3 solairu. 4 logela eta 2 komun. Terrazak. Ganbara. Txokoa beheko suarekin. 4 hektareako lursaila. **470.000 €.** **C.E.E=F**

Muntsaratz: Baserría. 670 m2. Familiabakarrekoa. 500 m2-ko lursailarekin. **C.E.E=F 525.000 €**

LOKALAK SALGAI

Durango: 100 m2-ko lokala. Alde zaharra. Egokitua. **115.000 €.**

Maspe: 150 m2-ko lokala. **90.000 €**

Komentukalea: 100 m2-ko lokala. Egokitua. **160.000 €**

Iurreta: Bixente Kapanaga. 117 m2-ko lokala. **75.000 €.**

Astepe: 40 m2-ko lokala. **70.000 €**

Askatasun etorbidea: 60 m2. Lokal egokitua. Kearentzako irteerarekin. **125.000 €.**

Abadiño: Pabilioia. 172 m2. Bulegoa, aldagelak eta komunak. Alokairuan edo salgai. **170.000 €.**



Sanagustinalde, 4 - 1 ezk. • 48200 DURANGO

ETXEBIZITZAK SALGAI

DURANGO

Goienkalea: 65 m2. 3 logela, komuna, sukaldea eta egongela. Balkoia.

Kurutziaga: 3 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna. Berriztatzeko.

Barrenkalea: Logela bakarreko apartamentua. Sukaldea, egongela logela eta komuna. Trastelekua.

Tabira: 4 logela, 2 komun, egongela eta sukaldea. 3 balkoi. Argitsua.

Barrenkalea: Logela. sukaldea eta komuna. Trastelekua.

Goienkalea: 2 logela, sukaldea, egongela balkoiarekin eta komuna.

ATXONDO

Atxondo: 3 logela, sukaldea, egongela ederra eta komuna. 2 balkoi. Igogailua. Gasa.

Atxondo: 3 logela, komuna, komun txikia, despentsa, sukaldea balkoiarekin eta egongela. Ganbara.

LURSAILAK SALGAI

Urrutxua: 9 hektareako 2 baso salgai. Errepidearen ondoan.

BASERRIAK ETA TXALEITAK SALGAI

Muxika: Urrutxua: 90.000 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserría. **90.000 €.**

Abadiño: Etxezurin kokatua. 300 m². Berriztatzeko. Lursailarekin. Ganbara.

Berriz: Andikona auzoa. Baserrí ikusgarria, berriztatzeko. Teilatua eta estruktura eginda. Ikuspegi ederrak. 7 hektareako lursailagaz.

Atxondo: Marzana auzoan. 7.500 m2-ko lursaila. Konpontzeko dagoen baserría.

Mañaria: 3 solairuko etxe ederra. Herri erdian. Udaletxe ondoan. 160m² solairu bakoitzean. Aukera ederra Mañaria erdian bizitzeko.

BULEGOAK ALOKAIKUAN

ABADINO

30 m²-tik gorako bulegoak. 350 €-tik hasita. Argia eta wifia barne.

DURANGO

Ermodo kalean. 100 m2. 2 bulego alokairuan. Garajearekin.

LOKALAK ALOKAIKUAN

Alde Zaharrean, hainbat tainainatako lokalak alokairuan. Etorri eta galdetu.

LOKAL INDUSTRIALA SALGAI


Matiena: 460m²-ko lokala salgai. Bulegoa, komuna eta aldagela. Oso egokia.

Elorrio: 600 m2-ko pabilioia salgai. Komunak, aldagelak eta bulegoa. Jantzia. Lanerako prest.

LOKAL INDUSTRIALA ALOKAGAI

BERRIZ

Berriz: Eitua industrialdea. 180 m2-ko pabilioia. Bulegoa, komuna eta aldagela. Errepide ondoan. Leku onean kokatua.



Askatasun etorb. 10 • DURANGO • 946 816 666
www.inmoduranguesado.com
inmoduranguesado@gmail.com

DURANGO

Antso Estegiz: 42,50 m2. Berriztatuta. Egongela, sukalde jantzia, 2 logela eta komuna dutxarekin. Egoera ezin hobean. Exe erdiak kanpora ematen du. Erdigunetik gertu. 6 m2-ko ganbara. ITE-a pasatutakoa.

DURANGO

San Roke: 66,40 m2 + 250 m2-ko terraza. Halla, egongela, sukaldea, eskegitokia, 2 logela eta 2 komun. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-ekialdea) Argitsua. Leku onean kokatua, zonalde berdez eta zerbitzugunez inguratuta. Egoera onean. Garajea.

ABADINO

San Trokaz: 33,65 m2. Egongela-sukadlea-jangela, egongela horma-armairuekin eta komuna dutxarekin. 122,20 m2-ko lursaila. Etxe osoak kanpora ematen du (hego-mendebaldea) Argitsua. Zonalde lasaia. Zonalde berdeak gertu eta aparkatzeko erraztasuna.

BERRIZ

Agirre Lehendakariaen pasealekua: 85m2. Halla horma-armairuarekin, egongela, sukalde jantzia handia, 3 logela eta komuna berriztatua dutxarekin eta leihoarekin. Balkoia. Teilatua eta fatxada eraberritua (SATE) eta duela gutxi instalatu den igogailua du.

BERRIZ

Okango auzoa: Bi familiako etxebizitza (eskuinaldea). 180 m2. Beheko solairua, lehen solairua eta teilatupea. 25 m2-ko lorategia. Egongela, sukaldea, 3 logela, komuna, bainugela eta 40 m2-ko espazio garbia. Egitura egoera onean. Bizitzen sartzeko prest. Etxe osoak kanpora ematen du (ipar-mendebaldea/ hego-mendebaldea) Berriz eta Zaldibar artean dago.



Barrenkalea, 15 behe • DURANGO
Tel.: 946 816 423 • www.fernandouribe.es

BERRIAK IURRETA

Zubiaurre: 3 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Igogailua. **198.000 € / E.E.Z=F**

DURANGO

Andra Mari: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta 2 komun. **240.000 € / E.E.Z=E** igogailu obra erosleen gain izanez gero, saltzaileen gain izanez gero **270.000 €.**

Antso Eztegiz: 3 logela, sukaldea, jangela, egongela eta komuna. Balkoia. **160.000 € / E.E.Z=F**

Barrenkalea: Konpontzeko dagoen eraikina. Sotoa, behe-solairua eta 3 pisuko altuera. **350.000 € / E.E.Z=F**

Juan Antonio Abasolo: 4 logela, sukaldea, egongela eta komuna. Balkoia. Konpontzeko. **170.000 €/ E.E.Z=F**

Juan de Olazaran: 3 logela, sukaldea balkoiarekin, egongela eta 2 komun. Igogailua. Trastelekua eta garajea. **385.000 € / E.E.Z=B**

Komentu kalea: 3 logela, egongela, sukaldea, sukalondoa eta 2 komun. Balkoia. Ganbara. Igogailua. garaje itxia aukeran. **280.000 € / E.E.Z=E**

ABADINO

Dendarikoa: Zaharbertitzeko dagoen eraikina. Beheko solairua eta 3 pisuko altuera. **215.000 € .**

Eskolakoa: Duplexa. 3 logela, sukaldea, egongela eta 3 komun. Balkoia. Garajea eta trastelekua. **LEHEN 325.000 € ORAIN 300.000 € / E.E.Z=G**

ATXONDO

Artekalea, 13: Konpontzeko baserría lursailarekin. **300.000 €.**

BERRIZ

Murgoitio auzoa: Berreraikitzeo baserría lurzoruagaz. **LEHEN 280.000 € / ORAIN 250.000 €**

Eitua: Berreraikitzeo baserría lursailarekin. **LEHEN 350.000 € ORAIN 330.000 €**

GAHA

Momoitio auzoa: Etxebizitza eraikitzeo lursailak. Aukera ezberdinak.

GARAJEAK SALGAI / ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Alluitz: Garaje itxia. **24.000 €.**

Kurutziaga: garajea. **18.000 €.**

Kurutziaga: Garaje itxia **22.000 €.**

Madalenoste: Garaje itxia eta trastelekua. **42.000 €.**

Plateruen plaza: Garajea **25.000 €.**

DURANGON ALOKAGAI

Muruetatorre: Garajea. **75 € / hilean.**

Antso Eztegiz: **45 € / hilean.** Motorrentzat egokia. Beste aukera batzuk bulegoan galdetu.

LOKALAK ETA PABILIOIAK SALGAI ALOKATZEKO

DURANGON SALGAI

Komentu kalea: 30m2-ko lokala guztiz berriztuta. **65.000 € / E.E.Z=F**

Aliendalde: 285 m2-ko pabilioia. **250.000 €.**

IURRETA

Zubiaurre: 11m2-ko lokala. **20.000 €** negoziagarriak.



LAU-HORTZA

SERGIO
MURILLO CORZO**Euskara maila(k)**

Gaur, euskal administrazio publikoan 150.000 langile baino gehiago dagoz. Aurreikuspen guztien arabera, hurrengo bost urteetan, seitek batek erretiroa hartuko dau. Kopuru handia izateaz gain, euren ordezkapenak herri administrazioak euskalduntzeko aukera historikoa dakar. Aldiz, abagune honetan lan eskaintza publikoetan euskara gaitasunak eskatzeko mugak eta epaiak dira nagusi.

Penaz heltzen deusat gai honi gaurkoan, besteak beste, Euskararen Legeak, 1982koa danak, bideratutako afera dalako (6. eta 14. artikuluetan) eta 43 urte geroago puri-purian egoteak asko penatzen nauhalako. Penaz, zelan ez!, orduko kontsentsu zabala berresteko zailtasunak ikusten dodazalako, eta penaz, baita ere, gure erakundeekaz gure hizkuntzan jarduteko eskubidea aldarrikatu behar izatea nekagarria dalako.

Gurea bezalako herri txikietan, langile publikoen hizkuntza gaitasunen eztabaida beste maila baten egon beharko litzateke. Esaterako, langile publikoen ingeles ezagutzaz eztabaidatu behar geunke, mundu zabaleko azken jakintza eskura euki dagien zerbitzu publikoa modurik eraginkorrean gauzateko. Baita benetazko osasun- edo hezkuntza-inklusioan, etorkinen hizkuntzen gitxieneke ezagutza izateak euki daiketan garrantziaz hausnartu ere. Aldiz, argi dago beste maila batean gagozala.

AKUILUA

"Sagardotegia familian geratzea gura nuen"

JOSE ANTONIO ZAMALLOA GARAMENDI SAGARDOGILEA

Uxarte sagardotegia zabaldu zuen orain 30 urte. Aurten erretiroa hartu du eta alabek hartu dute lekukoa. Bizkaiko sagardogileen elkarteko presidentea ere bada zornotzarra

Aitziber Basauri ZORNOTZA

Urtarrilean hasiko den sagardotegi garaia berezia izango da Jose Antonio Zamalloarentzat (Zornotza, 1958). Jaiotetxea duen baserriari irtenbidea emateko ipini zuen martxan sagardotegia, eta erreleboa ematea erabaki du. Sagardotegian laguntzen jarraitzen du, baina ardurarik barik.

Sagardoari buruz asko jakin barik ipini zenuen martxan sagardotegia.

Bai, ez genuen ezagutza handirik. Baina geure buruari helburu batzuk ipintzen dizkiogu eta horiek betetzeko puzzle handi bat osatu behar da. Burugorrrak ere bagara, eta lan handia egin eta gero, sagardotegia errealitate bihurtu genuen. Apurka hasi ginen eta orain 30 urte sagardotegia zabaldu genuen.

Aurten alabek hartu dute sagardotegiaren ardura. Zein sentsazioz eman duzu lekukoa?

Sentsazio onagaz! Baina ardura apur batez ere bai, bertigo apur bat ematen du. Horrelako proiektu bat martxan ipini eta gero, jarraipena emango dion inor topatu ezean frakaso txiki bat lez bizi duzu. Baserri inguruetan dagoen arazo nagusia horixe dela esango nuke: jarraipena emango dionik ez egotea. Horrek buruko



"POZIK NAGO, IKASITAKOA DATOZEN BELAUNALDIEI TRANSMITITU AHAL IZAN DIEDALAKO"

min handia eman dit azken urteetan.

Belaunaldi transmisio bat izatea gura zenuen.

Bai, baserria eta sagardotegia familian geratzea gura nuen. Pozik nago, urte hauetan ikasitakoa hurrengo belaunaldiei transmi-

titu ahal izan diedalako. Baserrietan derrigorrezkoa da dugun ezagutza, urteetan ikasitakoa, atzetik datorrenari erakustea. Gauza batzuk ondo egingo genituen, beste batzuk txarto... Baina jakituria hori gordetzeak eta inori ez erakusteak ez du ezertarako ere balio.

Bizkaiko sagardogileen elkarteko presidentea ere bazara.

Hori ere utziko dut. Urte hauetan gauza asko baztertu behar izan dut. Eta apurka dena utzi behar da, berriro ere gustuko duzunari heltzeko. Sagardoagaz lotuta jarraituko dut, baina ardurak albo batean utzita.

Datorren urteko txotx garaia berezia izango da? Zelan ospatuko duzu?

Berezia izango da, bai. Uxarten ospatuko dut, azken urteetan legez. Urtarril erdialdera egingo dugu sagardo denboraldi berria ospatzeko jaia. Gero, Bizkaiko Txotx denboraldiaren aurkezpena etorriko da.

Gipuzkoako eta Bizkaiko sagardoak desberdinak dira?

Ez. Kupel batetik bestera desberdintasuna egon daiteke, erabilitako lehengaiarengaitik, baina ez Gipuzkoakoa edo Bizkaikoa delako. Gainera, Euskal Sagardoak biok batzen gaitu. Oinarriarik bako eztabaida da.

Sagardotegia zabaldu zenetik, zela-koa izan da eboluzioa?

Guk norabide bati jarraitu diogu beti. Sagardotegi lasaia eskaintzea izan da gure apustua, edonork urte guztian disfrutatu ahal izango duen leku bat izatea. Sagardoak aukera asko duela uste dut, eta kontsumoa mantendu egin dela esango nuke.

Zelakoa izango da sagardo berria?

Goiz da oraindino, baina edateko puntu ona du, txinpartaduna.



SAN ROKE BARRIA II

Eraikin berria bizi-kalitate berarekin Durangon.

2 eta 3 logelako 47 etxebizitza berri, San Roke Barria II. Sukaldea guztiz hornitua eta armairuak gela bakoitzean.



GARAJEA



TRASTELEKUA



GIMNASIOA



RELAX GUNEA

946 46 20 41 **sukia.com**

SALMENTA BULEGOA: Astxiki kalea, 1. Durango



Zure etxean zaude. Estás en tu casa.